

## Herririk Herri 161

Larrakozelain kirol-gunea eraikitzeko desjabetzak martxan lurretan

## Ekonomia 101

Elorrioko Fytasa enpresan kaleratzen kontrako mobilizazioak



## Berbaz 191

J.M. Vicente: "Fundiféseko langileei langabezia laguntza amaitu jake"

# Gabonetako salmentak merkatarien helduleku

> Urte osoko gainbeheraren ondoren, Gabonek arnasa emon deutseela dinoe

> Halan be, ostalaritzan kontsumoa %25 jaitsi dela dino +Dendakak

16-17



Gabonetako salmentekin orekatu behar izan ditue urte osoko kontuak Durangaldeko merkatariek. Kepa Aginako

## Eusko Trenen egoitza berbagai izan dabe Arriolak eta Irigorasek

**Durango** • Bertan behera geratzeko arriskua daukan Eusko Trenen egoitzaren gainean berba egiteko batzartu ziren atzo Durangoko alkatea eta Iñaki Arriola Garraio Saileko sailburua, Gasteizen, Lakuan. Proiektua ez dagoela Eusko Jaurlaritzaren lehen-tasunetan azaldu deusie Arriolak.

2

## Sarriar interpretazio zentroa zabaltzea aztertzen dabilz

**Berriz** • Sarriako auzo eskola izan zena konpontzen hasiko da Udala. Teilatua konpondu eta barrualdea saneatzeko lanak hasiko ditue las-ter. Sarria auzoko erreka herrian izan dauen garrantziari buruzko interpretazio zentroa bertan egokitzea dau Berrizko Udalak helburu.

6

## 'Decir lluvia y que llueva' estreinakoz

**KULTURA** • Bihar, San Agustinen, estreinatuko dabe Kabia antzerki ikerkuntzarako guneko antzerkigile gazteek Joseba Sarrionandiaren poesia oinarrituta sortu daben 'Decir lluvia y que llueva' antzezlan.

13

## I.Alonso: "Kulturala goian ibiliko da"

**KIROLAK** • Iñaki Alonso (Durango, 41 urte) Real Unioneko entrenatzaileak ligaren bigarren erdirako dituen gurariak eta esperantzen berri emon deusku. Gaztetan, Kulturalan besteak beste, jokalaria legez izandako sasoa be gogoratu dau. Axier Intxaurrearen lana goraiatu eta goialdean ibiliko direla aurreikusi dau.

25

### •Mañaria

Eskola zabaltzeko ume nahikoa ez dagoela dino Jaurlaritzak

3

### •Otxandio

Abereendako larrea egiteko baimen barik dago Udala

7

### •Abadiño

Ordenantza Zibikoa martxan da

7



# HERRIRIK HERRI >

## DURANGO



Eusko Jaurlaritzak Zaha Hadiden proiektua ez egitea aztertzen zebilzela jakinarazo eban.

## EuskoTrenen eraikina ez dela lehentasuna dino Arriolak

Aitziber Irigoras alkatea Arriola sailburuagaz batzartu zen atzo Jaurlaritzan

**A**tzo, EuskoTrenen egoitzaren gainean lehenengoz batzartu ziren Aitziber Irigoras alkatea eta Mari Jose Balier alkateordea Iñaki Arriola Garraio Sailburuagaz, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzan. Batzarraren inguruan EAJk egindako balorazioaren araberako EuskoTrenen proiektua "ez

**Durango PSE-EEK publikoki eskatu deitso Garraio Sailari proiektua gauzatzeko, "fundamentaltzat" jota**

dago Eusko Jaurlaritzaren lehentasunen artean", Arriolak berretsi deituen. Halan be, aurrerantzean gaiari buruzko batzarrak egiten jarraitzeko borondatea erakutsi eban alde biek.

Eusko Jaurlaritzak Zaha Hadid-ek diseinatutako EuskoTrenen egoitza gauzatzeko kolokan ipini

ebanetik, bertan behera geratzeko aukera horren erantzukizuna bata besteari leporatu izan deituen behin baino gehiagotan EAJk eta PSE-EEK. Halan be, alderdi biek zein Durango udalbatzarran osotzen daben gainerakoek bat egiten dabe proiektuaren garrantzia azpimarratzerako orduan.

Durango PSE-EEK eraikina egitea "fundamentaltzat" jo dau, Garraio Sailari proiektua gau-

**Aralar eta Talde Mistoak eraikina egin bai, baina gainerako lur-zatia beste era batera kudeatzea eskatu dabe**

zateko publikoki eskatuz. Halan be, azkenean atzera botatzen bada, "orain dela urte bitik Ibarretxeren Gobernuak eta sindikatu abertzale batek tokialdatzea ez gauzatzeko zeukien akordioa gaitik izango da", dino. Aralarri eta EAJri hainbeste kexa plazaratu behar eban, 2010eko EAEko aurrekontu orokorretan alegazioak ipintzea be bazeukiela gogoratu deituen.

Lehenengo akusazioak "tokiz kanpokotzat" jo ditu Irigorasek. Alegazioei buruz, Irigorasek eta Dani Maeztu Aralarreko zinegotziak bat egiten dabe salatzean aurrekontuetan egindako emendakin "bat bera be ez" deituen. Oier Perez Talde Misto zinegotziak "gestino moldeen arteko talkan" dagoela dino. Juan Jose Gaztañazatorrek (PP) proiektua "bere osotasunean" kunplitzeko eskatu dau: "Zer burutan sartzen da behin puntu honetara helduta ez egitea?". Jose Luis Zubillagak (EB-Berdeak) argi dauka "proiektu osoa egitea garrantzitsua" dela. ■ J.D.

## Inoiz baino jente gehiago izotz pistan

Atzo itzi eban izotz pista eta Udalak "beste behin, harrera ezin hobea" izan dauela azpimarratu dau. Aurten igaz baino egun gitxiagotan zabaldu daben arren, izotz pistak inoiz baino bisitari gehiago izan dauela adierazo dabe udal arduradunek: 6.000 erabiltzaile guztira. Patinatzaile-ikastaroak be % 60ko gorakada izan dau. Guztira, 553 erabiltzaile joan dira antolatutako ikastaroetara.

Aurten bosgarren aldia bete dau izotz pistak. Balorazioa egiterako orduan dinoenez, "Durango Izotz Pista erreferentzia bilakatu da Bizkaia osoan, eta honen adierazgarri da lurralde historikoko hainbat eta hainbat udalerritatik Durangora etorri den bisitari kopurua". Horrez gainera, Landako erakustazokak funtzino askotarako balio dauela gogoratu dabe.

## ZALDIBAR

### Bi urterako Euskara Plana onartu dabe

Aho batez onartu eban udalbatzak, urteko azken ohiko osoko bilkuran, 2010-2012 urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa. Aurreko lau urteetako egitasmoak jaso zituen ekintzak ebaluatu ondoren, 2010ean zehar zehaztuko ditue preminazkoen jotzen ditueen euskara sustatzeko ekintzak. Bi esparrutan aurrekusi ditue bultzada handiena behar daben arloak: etorkinak euskarara gerturatzeko bideak ipintzea eta Udaletxeko jarduna euskalduntzea. Bestalde, Euskara Planaren inguruko arauak bilduko dituen Euskararen Ordenantza 2010 urte hasieran onartzea aurrekusi dabe.

### Aholkularitza Batzordea

Bi urte inguruan deseginda egonden Euskararen Aholkularitza Batzordea berreskuratu dabela nabarmendu dau Gobernu Taldeak Euskararen 2010-2012 egitasmoa osatzeko orduan. Udaleko ordezkariak eta zortzi herritarrek osatzen dabe batzordea. Herriko hainbat elkarte, talde eta erakundeek ordezkariak dira aipatutako batzordea osatzen dabenak. Herritarren %60 inguruk dakie euskara Zaldibarren, baina erabilera askoz murriztagoa delako, euskarak egunero koan herrian presentzia handiago izan daian bultzatzeko diseinatu dabe Euskara Plana. ■ I.E.

## Hiri Debekatuaren Mapa barrituko dabe

Hilaren 15 eta 16an mahai-ingurua eta herrian zehar ibilaldia prestatu ditu Berdintasun Sailak

Emakumeen segurtasunerako arriskutsuak izan daitekezen herriko guneak identifikatu ziren Hiri Debekatuaren Mapa osatu eban 2006an. Orain, Mapa gaurkotzeko mahai-inguru bat eta herrian zehar ibilaldia antolatu ditu Berdintasun Sailak, urtarrilaren 15ean eta 16an.

**Andraguneak Pinondon daukan bulegoan jaso leitekez argibideak**

Helburua Mapa harek izan eban inpaktua ebaluatzea eta ildo berriak finkatzea da. Hiri Debekatuaren Mapa emakumei era-

giten deituen herri segurtasun arazoei erantzuteko sortu eban, besteak beste.

Urtarrilaren 15eko ostiralean mahai-inguru bat egingo dabe eta herriko plano baten gainean "debekatu gune" legez identifikatutako puntu guztiak kokatuko ditue. Hilaren 16an, berriz, ibilbide bat egingo dabe herrian zehar, dinamizatzaile batek lagunduta. Ibilbidea aurretik identifikatutako puntu beltzen arabera zehaztuko dabe. Ekimen horrez gero segurtasun ezagaz lotutako faktoreak deskribatu gura ditue. Andraguneak Pinondo etxean daukan bulegoan jaso daiteke ekimenari buruzko informazio gehiago. ■ J.D.

## JAEDek ongintza zozketa egin dau Errege Egunez

Ongintza Zozketako sari nagusia, kotxea, Mariano García durangarrak jaso dau



Krkitineko gazteek atera zitueen zozketako zenbakiak.

Urtero legez, Errege Egunean JAEDek ongintza zozketa egin dau. Arratsaldeko 18:30ean jarritako hitzordura, txartelak eskuan hartuta, hainbat herritar hurre-ratu zen Andra Marira. Krkitin dantza taldeko gazteak izan ziren

zenbakiak ateratzeko ardura hartu eban. Kotxearen jabea agertu da dagoeneko. Mariano García Tabira auzoko durangarra da. JAED elkarteko ordezkariak pozik dagoz zozketak herritarren artean izan dauen harreragaz. ■ J.G.





MAÑARIA

# Eskola zabaltzeko behar beste ume ez dagoela erantzun dau Jaurlaritzak

Eskola txikia zabaltzeko gitxienez 12 ume izan behar direla zehazten dau 2009ko dekretuak

Udalak jakitera emon daue-  
nez, horixe da azaroan Eus-  
ko Jaurlaritzaren Hezkuntza  
Sailak Mañarian eskola txikia zabal-  
tzeko egin eban informazio eska-  
riari Gobernuak emon eutsan eran-  
tzuna: igazko urte amaieran onar-  
tutako dekretu batek zehazten  
dauenez, zerbitzua baliatuko leu-  
kien 12 ume egotea da hiru eta sei  
urte arteko eskola zabaltzeko bal-  
dintza. Zerbitzua eskatzen dabenean  
9 ume dagoz gaur egun Mañarian.  
Horrenbestez, "gestinoak oraingoz  
bertan behera" itziko dituela irar-  
garri dau Udalak.

2008ko urrian orriotan jaso  
genduenez, herriko hamaika hau-  
rren gurasoak izan ziren eskola txi-  
kiaren beharra Udalarri helarazi  
eutsienak, baina prozesua luzatzen  
joan den hilabeteetan Iurreta eta  
Durangon matrikulatu behar izan

dabe zenbaitek. Ondorioz, igaz  
zabaldu eben haurtzaindegiaren  
jarraipena litzakeen eskola txikia  
2010-2011 ikasturterako prest iza-  
teko zeukien helburua ezinezko  
ikusirik, aurrerantzean izan  
leitekezen aukerak aztertzen jarrai-  
tuko dabela aurreratu deuskue  
Udaleko ordezkariak. Ikasketak  
burutzeko 3 urte daukiezenetik  
euren herritik kanpora joan beha-  
rra saihestu eta herrian bizimodu  
guztia egin ahal izateko zerbi-  
tzuaren beharra nabarmentzen dabe  
herriko gurasoak. ■ I.E.

**Eskola txikia 2010-2011  
ikasturterako zabaltzeko  
hasierako asmoa gauzatzea  
ezinezkoa izango da**



Haurtzaindegia egonkortzen jarraituko dabela dinoe udal arduradunek. I.E.

ELORRIO

# Argiñetan aparkalekua jarriko dau Udalak

Bisitariak eta auzokideak ur deposituraino doan lur zatian izango dabe autoentzako lekua

Aurten Argiñetan aparkalekua  
eraikitze asmoa agertu dau Elo-  
rrioko Udalak. Ur depositura doan  
lur zatian eraikiko dabe aparkale-  
kua, Niko Moreno alkateak aurre-  
ratu dauenez.

Bisitariak Argiñetan ez dabe  
autoa izteko lekurik izan orain  
arte. Auzoko jaietan be, auto pila-  
ketak egoten dira bide bazterrean.  
Arazo horreek konpontzeko erai-  
ki gura dau aparkalekua Udalak.

Autobusek buelta emoteko lekua  
be egongo da aparkalekuan. Orain  
arte Mendrakaraino joan behar  
izaten eben buelta emotera.

Udalak oraindino ez dakizun-  
bat autorentzako lekua izango  
dauen aparkalekuak, baina aurten  
eraikitzea da asmoa. Morenok  
azaldu dauenez, oraindino Uda-  
laren eta lur-jabeen arteko trami-  
tazio batzuk falta dira, baina  
akordioa itxita daukie. ■ A.U.

# Irakurketa lehiaketa arrakastatsua izan da

Guztira, 66 ume eta gaztetxok parte hartu dabe Elorrioko XV. Irakurketa Lehiaketan

Irakurzaletasunari bultzada emo-  
teko, Elorrioko liburutegiak hama-  
bosgarren irakurketa lehiaketa  
antolatzen eban, joan barri den  
urtean. Guztira, 66 ume eta gazte-  
txok parte hartu eben. Sari bana-  
keta Gabon aurretik izan zen, eta  
lehiaketan liburu gehien irakurri  
ebenek sari bereziak izan zituen.

Liburutegiko langileek azal-  
du dabenez, lehiaketa aukera ona  
izaten da ume eta gaztetxoaren ira-

kurtzeko ohitura eta zaletasunak  
ezagutzeko. Horretara, pertsonaia  
edo bilduma baten liburuak jarrai-  
tzeko joera izan dabe parte-har-  
tzaileek. Txikienez gaztetxoek baino  
gehiago parte hartu dabe, eta  
neskek mutilek baino gehiago.

Sari-banaketa omenaldi txi-  
ki bat egin eutsien Silvia Molero-  
ri, hamabost urte honeetan lehia-  
ketako kartelak diseinatzen egin  
dauen lana eskertzeko. ■ A.U.

**Piztu LTDa**  
Askoz gehiago gozatuko duzu

**Kalitate Handiagoa**  
Teknologia digitalak irudi- eta soinu- kalitate handiko telebista jakarkitza: zeratairik gabe, interferentziarik gabe eta irudi bikotirik gabe.

**Guztientzako Programazioa**  
20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzu zure eskura: betikoak eta kanal-eskaintza gehigarri handia, era askotako edukiekin (musika, kirolak, haurrentzako, filmak, telesailak...)

**Zerbitzu Elkarreragileak**  
LTDri esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure irratiko kontrolarekin.

**Informazio gehiago: 901 201 004**



DIURRETA

# Larrakozelain kirol-gunea egiteko desjabetzak martxan

Kirol-gunerako 86.220 metro koadro aurreikusi ditue arau subsidiarioetan



Futbol zelaiaren eta A-8 autobidearen ondoan eraiki gura dabe kirol azpiegitura. Judit Fernandez

Larrakozelain kirol azpiegitura eraikitzeke zortzi lur zati desjabetzeari ekin deutso Udalak. Igazko abenduaren 23an udalbatzak hartutako erabakiari alegazioak aurkezteko 15 eguneko epea dago. Inguru horretan kiroldegia eta igerilekuak eraikitzea da helburua.

Iurretako Arau Subsidiarioek 86.220 metro koadro aurreikusi ditue, zortzi lur zatitan banatuta, Kirol, Kultura eta Hezkuntza Plan Berezirako Larrakozelaiko futbol zelaiaren eta A-8 autobidearen inguruan.

Herrian kirol instalazioen "premina handia" dagoela azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak: "Alor horretan hutsunea daukagu. Kirol azpiegiturretan, frontoia eta

futbol zelaia baino ez daukaguz, eta urte batzuetan 5.000 biztanlerahelduko gara". Gaineratu daueenez, Larrakozelaiko proiektua aspalditik martxan jarritako proiektua da, baina pausoak "asti-

**Iñaki Totorikaguena: "Herrian kirol instalazioen premina handia daukagu. Alor horretan hutsunea daukagu"**

**Larrakozelaiko kirol-gunearen oinarritzako proiektua aurten egitea aurreikusi dauela azaldu dau Udalak**

ro-astiro baina etenik barik" emoten dabilz, "inbertsino handia" delako. Udal aurrekontuetatik 900.000 euro daukiez gordeta.

**Oinarritzako proiektua**

Oinarritzako proiektua aurten gertu izatea itxaroten dabe, Larrakozelaiko kirol azpiegituraren ezauzgarriak zehaztu ahal izateko.

Orain bost urte inguru Plan Berezirako martxan jarritako ideia lehiaketa oinarritzat hartuko dabe. Alkatearen berbatan, "egoera ekonomikoa kontuan hartu behar dabe" egitasmo barria egiterakoan. Aurreikuspenak betez gero, 2011-2012an obrak hastea da asmoa. Totorikaguena jakitera emon dauenez, izan leiteke obrak faseka egin behar izatea. ■ J.G.

# Hirigintza Sailean hiru lanpostu barri sortuko ditue

Etxebizitza barriek biztanleria handituko dabe, eta ordurako antolaketa sendotua bermatu gura dabe

Iurretan etxebizitza eta industria alorreko hainbat proiektu martxan dagoz. Ondorioz, alor horretan Udalean egin beharreko gestioak eta herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak gehitu dira, eta gehiago haziko dira etorkizunean. Horreek horrela, Hirigintza Saila indartzeko, Udaleko lanpostuzerrendaren modifikazioa onartu eben abenduko udalbatzarran, sail horretan hiru lanpostu barri sortuz.

Esaterako, etxebizitza proiektuak gauzatzen doazen heinean —bost-sei urtean—, Iurreta 3.900 biztanletik 6.000ra haziko dela aurreikusi dabe.

Igazko irailean adostu eben Udaleko jardueraz azaldutako ildoetan antolatuko eban organigrama barria. Besteak beste, hor jasotzen diren hiru lanpostuak honako honek dira: Kudeaketa

orokorrerako teknikari bi —hirigintza alorreko gestio eta antolaketa eta obra zein lizentzietaz arduratuko direnak— eta goimailako industria ingeniaria.

Hiru lanpostuak lan eskaintza publikoan ipiniko ditue laster. Organigraman jasotako beste lanpostuak be osatzen joateko asmoa erakutsi dabe, "prekarietate laboralari aurre eginez, langileak euren postuetan egonkortzeko asmoz", udal arduradunen arabera.

Bestalde, Maiztegi herri eskolan orain hutsik dagozen peoi eta atezain lanpostuak be banatzeke asmoa erakutsi dabe. ■ J.D.

**Kudeaketa orokorreko teknikari bi eta goimailako industria ingeniaria dira sortutako lanpostu berriak**

ATXONDO

# Olaetxeak hartuko dau Alejok itzitako kargua

Hamarkada batez zinegotzi jeltzale legez jardun ondoren aurkeztu dau Anjel Alejok dimisinoa

Urte amaierako azkeneko udalbatzarrean bere alderdikideek jakinarazi eben, "arrazoi pertsonalak medio", hamar urtean bete dauen kargua itziko ebala Angel Alejo EAJko zinegotziak. Hirugarren legegintzaldia izango eban Alejok Udalean, baina azken hau amaitu orduko egin deutso Udaleko karguari muzin.

Urtarriletik aurrera izango diren hileroko eguaztenetako osoko bilkurretan eta jagokozen Udaleko batzordeetan jeltzaleen laugarren ordezkaria, Anjel Alejok lagatako eserlekua hartuko dauena, Jose Luis Olaetxea izango dela

jakinarazi deusku Atxondoko Udalean alderdi jeltzalearen bozerroale eta zerrendaburu den Miguel Angel Buruagak. 2007ko udal hauteskundeetara EAJk aurkeztu eban zerrendan bosgarren zihuan Olaetxea izango da 2010 hasi barri honetan Udaleko aurrepegi barria. Aurretik zinegotzi izan bakoa da Olaetxea, Buruagak azaldu deuskunez. ■ I.E.

**"Arrazoi pertsonalak" direla Alejo alderdikidearen dimisinoaren arrazoiak azaldu eben plenoan jeltzaleek**



# ALMACENES ARRASATE



Kataide Industrigunea, pab. 3  
20500 Arrasate-Mondragon  
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34  
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea  
48200 Durango  
Tel./Faxa: 94 681 34 85



 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA F-2012</b> FAGOR 465 -105 <b>360 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1200 b/min 7 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA F-2712</b> FAGOR 420 -105 <b>315 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1000 b/min 7 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA WM 10E 321</b> SIEMENS 425 -105 <b>320 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1000 b/min 6 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA 3F-1610</b> FAGOR 335 -105 <b>230 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1000 b/min 5 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA ALF-110</b> FAGOR 280 -105 <b>175 €</b> (Retirare plana)</p>
 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>1000 b/min 5 Kg</p> <p><b>A+</b> Clasificación energética</p> <p><b>GARBIGAILUA TS-60100</b> FAGOR 295 -105 <b>190 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>185 x 60 x 60</p> <p><b>A</b> Clasificación energética</p> <p><b>HOZKAILUA DREAM G-186</b> FAGOR 490 -85 <b>405 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>2</b> Clasificación energética</p> <p>144 x 65 x 60</p> <p><b>A</b> Clasificación energética</p> <p><b>HOZKAILUA AFD-145</b> FAGOR 295 -85 <b>210 €</b> (Retirare plana)</p>	 <p><b>A</b> Clasificación energética</p> <p><b>INDUKZIOA IF-3S/X</b> FAGOR 475 €</p>	 <p><b>A</b> Clasificación energética</p> <p><b>LABEA ETA BITROZERAMIKA</b> FAGOR 360 -75 <b>285 €</b> (Retirare plana)</p>

**RETIRARE PLANA**  
GARBIGAILUAK  
ONTZI-GARBIGAILUAK  
HOZKAILUAK  
IZOZKAILUAK

**A -85 €**  
**A+ -105 €**  
**LABEAK -75 €**

Lasagna Biltegizko produktuak ez dira berriz berriz zuzentzen energiaren kontsumoaren arabera. Biltegizko produktuak ez dira berriz berriz zuzentzen energiaren kontsumoaren arabera.

A **20%** 70%  
A **33%** 45%  
E **37%** 25%

**Biltegizko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatuz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo-ondoa.



## BERRIZ

# Sarriako auzo eskola izan zena konpondu egingo dabe

Datozen bi urteetan, eraikina konpondu eta uraren interpretazio zentroa jartzeko asmoa daukie

**T**eilatua konpondu eta barrualde saneatzeko lanak hasiko dira laster Sarriako eskolazaharrean. Fase bitan egingo diren lanetan, lehenengo auzo eskola konpondu eta interpretazio zentro bat atontzeko asmoa

**Sarriako erreka Berrizen izan dauen garrantziari buruzko interpretazio zentroa jartzea da Udalaren asmoa**

dauka Udalak. Uraren inguruko interpretazio zentroa izango litzateke, eta urak Berrizen izan dauen erabilera izango leuke oinarri.

Sarria erreka uraren indarra aprobetxatuta, Berrizen hiru argindar-etxe, bost errota eta ola

bat egon direla gogoratu dau Jabier Azpitarte alkateak. Errekako ur hori zelan aprobetxatu izan den erakusteko atonduko dabe eskola zaharra. Horrez gainera, herriko ibilbide txikien inguruko informazioa be emongo litzakela eta nekazal turismoagaz lotura izango leukela aurreratu dau alkateak.

Oraindino ez dago egitasmoa finkatuta, baina auzo eskola izan-

**Hiru argindar-etxe, bost errota eta ola bat egon dira Sarria erreka inguruan**

dakoa konpontzeko lanak laster hasiko ditue. Datorren astean teilatua konpondu eta barrua saneatzeko lehiaketa publikorako plegoak prest izatea aurrekusi dabe. Lehenengo fase horretarako diru-atala 33.000 eurokoa izango da. Proiektua 2010 eta 2011 urteetan burutzea da Udalaren asmoa, eta, guztira, 130.000 euro inguruko gastua izango litzakeela kalkulatu dau Berrizko Udalak. ■ A.U.

**Lehenengo fasean teilatua eta barrualdea konponduko ditue, eta laster ipiniko dabe lehiaketa publikoan**



Lehenengo eskola zaharrak 200 metro karratu inguru daukaz, eta frontoi txiki bat be badauka. J.D.

## Iturrian plaza atontzen dabilz, mahai-jokoekin

Xakea, partxisa, antzararen jokoak, ping-ponga... oraindino ez ditue jokoak zehaztu, baina Iturria kalean mahai-jokoentzako plaza txiki bat eraikitzen dabil Berrizko Udala. Iturria eta Gabiola artean egiten dabilzen lanen barruan, plaza hori atondu eta haur, gazte, heldu eta nagusientzako espazioa eraikitzea da Udalaren asmoa.

Jabier Azpitarte Berrizko alkateak adierazi dauenez, Udalaren asmoa jente asko pasatzen den bide hori atseginagoa bihurtzea da: "eguraldi onagaz jokoak konpartitzen egoteko lekua izatea gura dogu". Belaunaldi guztietako jendearentzat izango dela nabarmendu dau Azpitartek. Inguru eguzkitan egongo den terraza hutsa ez izatea gura dau Udalak.

**Iturrikalea belaunaldi guztiek jolastu ahalko daben lekua izan daiten gura dau Berrizko Udalak**

Iturria kalea erreformatzeko lanek 180.000 euroko aurrekontua daukie. Plaza txikiagaz gainera, inguruetako mugikortasuna hobetzeko lanak egingo ditue, eskailera ugari kenduz. Lanak amaitutakoan, eskailera mahai-jokoen plazatik herriko rock taldeentzako lokaletara baino ez dira egongo. ■ A.U.

## MALLABIA

## Iragarkia grabatu dabe Mallegoi baserrian

Eneritz Aranburuk eta Ruben Markinak aktore lanak egin ditue Kaikuren telebistarako iragarkian

Kamera eta monitorea izan ditue lagun Mallegoi baserrian urte amaieran. Eneritz Aranburu eta Ruben Markina bikoteak 50 behetik gorako nekazal ustiapena daukanez, Kaiku enpresak iragarkia grabatzeko proposamena egin eutsen. "Aurretik gure umeagaz argazkia atera euskuen, ontzietan jartzeko", azaldu deusku Eneritzek. Oraingoan, barriz, iragarkirako

gidoia izan dabe kamera aurrean esateko. Esperientzia polita izan dela azaldu deusku protagonistek. "Rubeni kamera kontuak asko gustatzen jakoz, eta han ibili zen teknikariek". ■ J.G.

**50 behetik gorako ustiapena dauka Eneritz Aranburu eta Ruben Markina bikoteak**



Ruben Markina Kaikuko bazkidea da.

## GARAI

## Aurrekontua onartu eban udalbatzarrek

2010erako udal aurrekontua onartu eban Garain, joan zen abenduaren 22an egindako udalbatzarrean. Aho batez hartu eban erabakia zinegotziek.

Guztira, 427.100 euroko aurrekontua izango dau Udalak, eta inbertsioen artean aipatzeak dira kultur etxeari begira egindakoak eta errepideak konpontzera bideratutakoak.

**60.950 euroko inbertsinoagaz, kultur etxeko lehen solairua erreformatuko dabe**

Kultur etxea Otea-Loran elkartearen gaineko lokaletan egokitu gura dau Udalak, eta dagoeneko hasi eban 2009an teilatua eta fatxada konpontzeko zein igogailua ipintzeko fasea. 60.950 euroko inbertsinoagaz, lehenengo solairua erreformatuko dabe urte honetan.

Garaizarretik Barreinkuara bidea konpontzeko 6.000 euro erabiliko dira, Iurretako Udalgaz batera elkarlanean. ■ M.O.

BFA DFO Durangaldeko Behargintza

2009/2010 IKASTURTERAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

MEKANIZATU ARRUNTEAN TEKNIKARIA	275 ordu
PRAKTIKAK	102 ordu
GERIATRIA-ERIZAIANTZAN LAGUNTZAILEA	278 ordu
PRAKTIKAK	240 ordu
TABERNA- ETA KAFETEGI-ARLOKO SUKALDARITZA ELABORAZIOAK ETA BARRA-ZERBITZUAK	272 ordu

Izena emateko epea:  
• 2010eko Urtarrilaren 22a arte

Informazio gehiago Durangaldeko Behargintza

www.amankomunazgoa.com



ABADIÑO

# Gizalegearen kontrako jarrerak ditueenei isunak jartzeko araua

Igazko irailean Udalean onartutako Ordenantza Zibikoa betearazten hasi dira



Herrigunean txakurrak lotu barik eroaten ditueenei isunak ipiniko deutsez udaltzainek.

Udalak horretarako atondutako guneetatik kanpora kartelak ipintzea edo txakurra herrigunean lotu barik eroatea dira iraileko udalbatzarrean Talde Independententeko alkatearen kalitateko botoagaz onartu eben Ordenantza Zibikoa erregulazten dituen arloetako bi.

Agerikoa da hasiak direla ordenantza barriak jasotzen dituen arauak herritarrei jakinarazi eta betearazten. Arauok bete

**Ordenantza Zibikoa zehazten dituen arauak betetzen ez dituenentzat 30 eta 450 euro bitarteko isunak izango dira**

**Agerikoa da udaltzainak hasiak direla arauak betearazi eta herritarrei jakinarazten**

ezik, 30 eta 450 euro bitarteko isunak ezarriko ditueela adierazi dau Udalak. Herrigunean txakurra lotu barik eroateagaitik legez, txakurra gorotzak ez jasotzeagaitik edo zaborra edukiontzietatik kanpora izteagaitik isunak ipintzeko eskumena izango dabe udaltzainek. Aitatutako jokabidea daukien herritarrak gitxiengo direla nabarmendu arren, gitxi horreen jarrera aldatu beharra dagoela azpimarratu dau Gobernuak. ■ I.E.

OTXANDIO

# Aldundiaren baimenik ez abereendako larrea egiteko

Mendikurkurren egin gura daben larrean pinadia dago, eta Aldundiak ez dau oraindino bota gura

Mendikurkur inguruan abereak bazkatzeko 10 hektarea inguruko larrea egin gura dau Udalak. Lurzati haretan pinadi bat dago, eta hareek botatzeko Aldundiaren baimena behar dabe. Aldundiak ez deutse baimenik emon, pinadia botatzeko oraindino goizegi dela argudiatuz. Aritz Otxandiano alkateari arrazoiak eta egoera "absurdak" iruditzen jakoz, eta lehenbailehen Aldundiko Basoen Saileko arduradun Peli Manterolagaz batzarra eskatzeko asmoa daukie.

Larrea egitea lortuko balebe, bi izango litzateke Otxandion asmo horretara bideratutako larreak. "Larreak baserritik bizi diren otxandiarrek zein abereak afizinoz dituenek erabiltzera

zuzenduta dagoz, eta Mendikurkurrekoa be horretarako litzake", zehaztu dau Otxandiano alkateak.

Mendikurkurrekoagaz batera San Bernabe inguruan beste larre bat egin gura eben, baina kasu horretan be Aldundiak ez deutse baimenik emon. Beraz, eremu hori garbitu eta behatoki antzeko bat egingo dabe bertan. Izan be, San Bernabetik oso ikuspegi onak dagoz Anbotora eta Gorbeara, besteak beste. Dagoeneko hasi ditue behatokiko lanak. ■ J.D.

**San Bernaben larrea barik behatokia egingo dabe; dagoeneko hasi ditue lanak**

IZURTZA

# UEMAN sartzeko azken pausua emon dabe

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko Izurtzako Udalean emoteko zeukien azken pausua emon eben urteko azkeneko udalbatzarrean. Ezker Abertzaleko Gobernu Taldeak proposatuta, mankomunitateko kide bilatzeko prozesuan falta zen oniritzia emon eban udalbatzarrak, beraz.

Herritarren %70etik gora euskaldun ditueen udalerrietako bizitza soziala-publikoa zein pribatua- euskaraz izan daiten bultzatzeko neurriak hartzea dau Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak helburu; udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea. Atxondo, Otxandio eta Mallabiagaz batera, Durangaldean UEMAn kide den laugarren herria da Izurtza. ■ I.E.

ABADIÑO

# Astolako igerilekua itxita, haizeak kalteak eraginda

Orain aste beteko haizeteak eragindako kalteak konpondu bitartean, itxita mantenduko dabe Astolako igerilekua; urtarrilaren 18a arte, Udal Gobernuak jakinarazi dauenez. Igerilekuaren estalkian eragin zituen haizeak kalte gehien.

Udal arduradunek aurreratu dabenez, igerilekua itxita dagoen asteak aprobetxatuko ditue urte birik behin egin behar izaten ditueen mantenimendu lanak burutzeko be.

Igazko urtarril amaieran be, gogorren Euskal Herriko kostaldea astindu eban haizetearen eraginez igerilekuaren estalkia hautsi zelako hainbat astez itxita eduki behar izan eben Astolako igerilekua.

BERRIZ

# Gazteak euskaraz trebatzeko asmoz, ikastaroa urtarrilean

Koikili Lertxundi Athleticeko jokalaria (Itzarri Consulting zerbitzuaren bitartez) Berrizko gaztetxei ikastaro berezia eskainiko deutse urtarrilean. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko eta DBHko ikasleek parte hartuko dabe. Besteak beste, teknologia barriak euskaraz erabiltzen erakutsiko deutse. Ikastaroa urtarrilaren 18, 22, 25, 27 eta 29an izango da, 19:00etan. Parte hartu nahi dauenak urtarrilaren 14a baino lehen udaletxean emon behar dau izena. Horrez gainera, otsailean eta martxoan kirol entrenamenduak euskaraz egiteko trebatze saioak be eskainiko ditue, kirol taldeetan euskara sustatzeko helburuz.



DURANGALDEA

# Karabana Solidarioa amaitzear

Herria Auzo Elkarteak zortzigarren urtez antolatu dau Algjliako Tinduf kanpamenduan dagozen sahararrei laguntzeko Karabana Solidarioa. Aurten arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batzeko deia egin dabe. Durangon produktuak batzeko epea amaitu den arren, eskualdeko gainerako herrietan (Abadiño, Atxondo, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarren) urtarrilaren erdialdera artekoa da epea. Euskal Herrian batutako produktu denekin otsail erdialdera irtengo dau Karabana Solidarioak Algjliako Tinduf kanpamendura.

DURANGO

# Andra Marian dagoen bataio-akta zaharrenak 500 urte bete ditu

Uribarriko Andra Maria basilikan gordeta dagoen bataio-akta zaharrena 1510eko urtarrilaren 6koa da. Beraz, eguaztenean 500 urte bete zituen. Mende erdia ospatzeko meza berezia egin eben. Izan be, meza hasi aurretik 500 kanpaikada jo zitueen; joan den urte bakoitzeko bat. Jose Mari Kortazar parrokoak emon eban meza, Juan Azpitarte eta Juanjo More apaizak altaretan jesarrita zegozela. Mezan aita-ama senegaldarrak dituen Edorta Diatta Diatta Zaldibarren jaiotako umea bataiatu eben.

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946.200.427  
saltsan

MOMOTXO  
TABERNA  
Plateruen plaza, 12  
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

"BODEGUILLA"  
TRAÑA-MATIENA  
Tfnoa. 94 681 43 85



# 2009-2010 GABONAK IRUDITAN





# BERBAZ >

## “Egoera larria da, langile batzuei langabezia laguntza amaitu jake-eta”

Gose greban egon da bederatzi egunez Jesús Mari Vicente Durangoko Fundifés enpresako behargina



### Jesús Mari Vicente •

- Basauriarra
- USO sindikatua

**J**esús Mari Vicente USO sindikatuko kidea izateaz gainera, Fundifés enpresako langilea izan da. Enpresa itxi ondoren, langileei “irtenbiderik justuena” emoteko plan soziala egituratu eben behargin eta sindikatuek. Neurri nagusia enpresak hartzen dituen 16.000 metro koadroak birkalifikatzea da, lortzen den dirua langileen artean banatzeko. Udalari neurri hori hartu daiala eskatzeko gose greba hasi eban, baina medikuen gomendioz itzi egin dau.

#### Osasunez zelan zagoz orain?

Medikuarengana eroan nindueenean tentsinoa oso altu neukala eta infartoa emoteko arriskua zegoela esan eusten. Probak egin eustezen, eta erabaki bat hartu beharra zegoen. Orain, errekupezi- no fasean nago. Ahul nago oraindino, batez be, belaunetatik. Janaria jaten hasi naz eta kilo bat hartu dot. Tripako mina be izan dot. Halan be, gogotsu nago eta bideonetik noalakoan nago.

#### Zer balorazino egiten dozu?

Apustu irmoa izan da ondasun baten birkalifikazioa-gaz familiek babesa topatu daien. ELAk jarrera aldatze-ari garrantzia handia emoten deusat, birkalifikazioa egiteko oztoporik ez dagoela esaterakoan. Konturatu dira sinatutako dokumentua euren nahiekin bat zetorrela.

#### Aurrerapausorik?

Udaleko teknikariak eta SGOLEkoak (lur zatia zelan gestionatu erabakitzeko ardura daukan sozietatea, langileek sortutakoa) lanean aritu dira. Ondoren, politikoe-koek hartu beharko dabe erabakia.

#### Udalak gehiegizko eraikuntza planteatzen dozuela esan dau.

Guk beti esan dogu ekosistema zaindu gura dogula, eta legeak definitutako parametroen barruan lurren aprobetxamendurik onena gura dogula. Eztabaida beti be gehienez lau pisuko eraikinak oinarri hartuta emon dogu; inoiz be ez lau pisuko eraikinak baino altuagoak. Guk zera eskatzen dogu: legea errespetatuta, ahalik eta ondoen aprobetxatu daitela, eta ahalik eta prezio justuena lortu.

#### Zuen proposamena negoziatzeko prest zagoze?

Jakina. Plan sozialari aurre egiteko lur horreek emon leikiena baino diru gehiago behar zela argi genduen hasieratik. Sasoi haretan be ikusten genduen obligazio guztiei aurre egiteko kapaz ez baginen, gure pretentsioak jaitsi beharko genduzela. Gainera, negoziazioa teknikoek tasatu dabe, zeozelan esatearren. Eurak dira esan leikienak planteatu dena gauzatu leitekeen ala ez. Egiten den balorazino tekniko horretatik datorrena onartuko dogu. Beraz, kontu hau aurrera eroateko erraztasunak emoten gabilzela deritzot. Azken batean, prezioa ez dau Udalak zehaztuko, balizko eskaintza eta eskariaren legeak baino.

#### Kontu horregazurteaskoanzabilze atzera eta aurrera.

Bai, eta langile batzuei amaitu jake langabezia laguntza. Otsaila enpresatik zetozen langileek, batez beste, 13 hilabeteko paroa zeukien, eta Fundifésekoek ia 24 hilabete. Kontratuak amaitu zirenetik hona (2008ko maia-

“ELAren jarrera aldaketa oso garrantzitsua dela deritzot”

“Udaleko eta SGOLEko teknikariak elkarlanean dabilz”

“Baraualdiaren ondoren errekupezi- no fasean nago”

tzean) 18 bat hilabete joan dira. Badakit badagozela familiak etxea itzi behar izan dabenak ezin deutseelako hipotekei aurre egin. Ez da serioa. Ondasun bat diru bilakatzeko aukera erreala egon badago, beti be, helburu sozialetarako eta familiei lagundu guran, baina ez dabe egin.

#### Zergertatu da ELA sindikatuagaz?

ELAk eta sindikatu horretan afiliatutako Fundiféseko 16 langilek lurak ez birkalifikatzeko eskatu eben, banaketan bardintasuna bermatu arte eta plan sozialeko puntu guzti-guztiak beteko direla bermatu arte. Plan soziala bere osotasunean beteko da lurrek horretarako emoten badabe. Bestela, ezinezkoa da. Planean be aurreikusita zegoen hori; garbi itzi zen gehiengora iritsi ezik, zenbateko ekonomikoak jaitsi egin beharko zirela. Sasoi haretan, beharrian guztiei aurre egiteko zenbateko kopurua 18 milioi euroan zegoen. Berdintasuna, aldiz, bermatuta dago.

#### Zergaitik, orduan, ELAren mesfidantza?

Fundiféseko langileek 25.000 euro jaso ditue eta Otsailekoek 5.000, bere sasoi- an jaso ebelako gainerakoa. Bardintasuna parametro justuen barruan kokatu beharra dago. ■ J.D. / J. G.



# EKONOMIA<sup>></sup>

> DURANGALDEA

## Postuak ziurtatzeko eskatu dabe Fytasa-Ductilorren

Zuzendaritzak hainbat neurri hartu gura ditu, horreen artean 21 pertsona kaleratzea aurreikusi dabe

Fundizinoaren egoera ekonomikoa dela-eta, Fytasa-Ductilorreko zuzendaritzak "bideragarritasun plana" jarri gura dau martxan, eta plan horren kontra protesta egin dabe enpresako langileek. Fytasaren egoera hobetzeko, besteak beste, honako neurriak hartu gura ditu zuzendaritzak; 21 pertsona kaleratzea, soldata % 15 jaistea eta urtean ordu gehiagoan behar egitea.

Langileek hainbat protesta egin ditue zuzendaritzako asmoen aurka eta lanpostuak ziurtatzearen alde. Langile batzordearen ustez, enpresak ezin dau "hain egoera ekonomiko txarra" izan, eta gaur administrazioagaz batzarra izan dabe enpresako diru kontuen inguruan berba egiteko.

Fundizinoa diruz hain txarto ez dabilela uste dabe langileek eta kontuen inguruko batzarra egin dabe administrazioagaz

### Soldata berandu

Langileekin dituen zorrak ordaindu ezin dituela-eta, konkurtso egoeran edo lehengo ordainketa etenduran dago Ductilor joan zen irailetik. Ductilor Fytasako zuzeneko lana eroaten dauen enpresa da. Konkurtso egoeran, bertako langileen soldata Fogasaren esku geratu dira. Atzerapenak izan ditue soldata kobratzerakoan, eta abenduaren erdialdean egun osoko itxialdia egin eben soldaten inguruko informazioa eskatzeko. Langileen ordezkariek azaldu dabenez, orain dela gitxi jaso dabe abenduko soldata, eta gabonetako ordain-saririk ez dabe oraindik jaso. ■ A.U.



Gabonen aurretik manifestazioa egin eben Fytasatik Elorrioko plazara.

> DURANGO

## Fumbarrin ERErako akordioa sinatu dabe

Sei hilabetetan inor ez kaleratzera eta soldaten % 80 ordaintzera konprometitu da enpresa

Negoiazinoak etenda egon eta gero, Fumbarriko zuzendaritzak eta langileen batzordeak hasi barri daben ERErako akordioa lortu dabe. Abenduaren 21ean sinatutako akordioan, besteak beste, EREak iraungo dauen sei hilabeteetan inor ez kaleratzeko eta soldaten % 80 ordaintzeko konpro-

misoa hartu dau Fumbarrik. Hasieran % 70 ordaintzea zen zuzendaritzaren proposamena, eta kaleratzeen inguruan ez eban ezer zehazten.

### Kaleratzeen beldur

EREa martxan jarriko zela jakin ebenean, kaleratzeen arriskua

ikusi eben Fumbarriko langileek, eta horregaitik lanpostuak ziurtatzeko eskatu dabe batzarretan eta hainbat protestatan.

Hasieran urtebetean inor ez kaleratzeko konpromisoa eskatu eutsien langileek enpresari. Oraingoz sei hilerako akordioa lortu dabe, eta gerorako akordio bat be badaukie. Lehenengo ERE horretan Fumbarrik 6.500 tona funditza lortzen badau, baldintza bardinak izango leukiez bigarren ERE baterako, beste sei hiletarako. Holan ez bada, enpresak konpromisoa hartu dau langileekin jesarri eta kaleratze traumatikoak ez egoteko neurriak hartzeko. ■ A.U.

■ kolaborazioa



Aitor Iturriaga  
LAB sindikatua

### Mundu berria

Mundu berri bat iragarri ziguten krisi honetatik irtetzerakoan. Iraganeko hutsak zuzendu eta munduko finantza eta ekonomia eredu berri baten zimenduak eraiki behar zirela aldarrikatu zen, nonahi, krisiaren lehenengo hilabetetan. Finantza merkatuen araudi zorrotza, tobin tasa... Haizetan galdu dira hitz hutsal horiek. Liberalismoaren ikur diren banku finantzario eta multinazional handiak denon lepotik ari dira orekatzaren beraian balantzeak. Diru behar izan direnean ez diote oztoporik jarri estatuaren interbentzionismoari, akabo eskarian eta eskaeran oinarritutako "merkatu librearen" orekari... Bat-batean isildu ziren liberalismoaren defenda-tzaile sutsuak, kolpean erre ziren urtetan elikatu eta gizendutako teoria ekonomikoak. Pobreak aberatsak salbatzera. Estatuaren tripak alderik alde zabaldu dituzte, putreek beraian diru-gose aseezina baretu dezaten. Gaur jauntxoie egindako opariak, garesti ordainduko ditugu langile eta pentsiodunak datozen urteetan, neurri eta zentzurik gabe zorpetu diren administrazio publikoen erruz.

### Goranzko bidea iragartzen digute, baina guk 2010 beltza aurreikusten dugu

Kimu berdeak ikusten dira nonahi eta hondoa jo omen dugu; goranzko bidea baino ez da geratzen, krisiaren etorrera usaindu ere egin ez zuten "jakintsuen" ustez. Guk, ordea, 2010 beltza aurreikusten dugu. Hainbat enpresa desagertuko da, txikiak batik bat, eta ekonomiaren hazkunde leunak asko jota enpresetako EREak kentzen joateko balioko du; baina ez enplegua sortzeko, ez behintzat nabarmentzeko kopuruan. Hortaz, langabe-tuen egoerak txarrera egingo du. Langabeziako ordainsariak bukatzean, kasurik onenean subsidioen laguntzarekin biziraun beharko dute, pobrezia-aren estatistikak puztuz, eta jendartearen desberdintasunak areagotuz. Azken finean, mundu berriak lehengoaren bidea darama, aberatsak aberatsago bihurtu eta gainontzekoak pobretuz.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

ORAIN DURANGON ERE BAI

IMD SAINTEAS ANTON LANGITZ ABIZ

**Osasuntek**  
KLINIKA ETA KIRURGIA OPTALMOLOGIKOA

**Jauregui medikua**

- Kataraktaren kirurgia
- Glaukoma kirurgia eta laguntza
- Retinaren kirurgia eta laguntza
- Hesi-irratizko kirurgia
- Hesi-irratizko laguntza

**Etxeandia medikua**

- Begiaren zirkulazioaren kontrola
- Diabetikoaren kontrola
- Hesi-irratizko kirurgia
- Ocularren laguntza

Zumalakarregi kalea, 18 (Solairu artekoa) Durango • Tel.: 94 655 09 43



# KULTURA<sup>></sup>



Argazkia: Ana Dominguez

## MUSIKA > EMANALDIA

# Delorean Platerueneko elektronikaren gauean

**U**rtea hasteko, martitzen honetan izan den *DuranDance* jaialdiari espazioa utzi diote Durangoko Plateruenean. Errege Egunaren bezpera gauean izan da urteko lehenengo musika emanaldia antzokian.

Doinu elektronikoen erakuslehoio izan da Plateruena, The Requests kataluniarren eta Delorean talde euskaldunaren emanaldiekin. Jaia luzatzeko ardura, berriz, Undo eta Kinki Dj-ek izan dute *DuranDance* amaitzeko.

Madril eta Estatu Batuetara abiatu orduko, Durangokoa izan dute Delorean taldekoek azken emanaldia. Amaitu berri dugun urtean *Ayrton Senna* EP edo disko laburra kaleratu eta gero, dis-

ko berria prestatzen dabilta, aurtengo udaberriari kaleratzeko. Dantzarako abesti aproposak sortu eta esperimentatuz soinu berriak lortzea izan dute 90eko hamarkadan talde moduan sortu zirenetik Deloreanekoek helburu. Hasieran pop estilotik gertuago ibili baziren, urteek aurrera egin ahala gero eta doinu tekno eta elektronikoagoa landu dute.

Urte hasierako Platerueneko hurrengo hitzordua gaurkoa da, urtarrilaren 8an BLOK eta Muted taldeak bilduko dituen. Iazko uda hasieran argitaratu zuten *Inox* disko berriko kantak joko dituzte Mutedeko abadiñarrek, ekainean Plateruenean aurkeztu zuten hirugarren diskoan bildutakoak. ■ I.E.

Musika elektroniko eta dantzagarriaren jaialdia izan da 'DuranDance'

## 12 Berrizko argazki lehiaketa

Inoizko parte-hartzerik handiena izan duen argazki lehiaketako lanak ikusgai izan dira Berrizko Kultur Etxean gaur arte. Herriko baserrien irudiak dira.



## 13

## 'Decir lluvia y que llueva'

Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren poesia lanean oinarrituta, Kabia antzerki talde gazteak sortu duen lanaren estreinaldia, San Agustinen, bihar.



PROGRAMAZIOA &gt; ARRIOLA

# Elorrioko Arriola antzokiko 2010 urte hasierako egitaraua

'Aitarekin bidaian' eta 'Hermanos del baile', besteak beste, urtarrilerako

**H**iru dira 2010 urteko hasiera honetarako, urtarrilerako, Elorrioko Arriola antzokian programatu dituzten ikuskizunak. Urtarrileko azkena iazko urrian Durangoko San Agustinen aurkeztu zuten *Aitarekin*

Urtarrileko azkeneko emanaldia: 'Aitarekin bidaian' antzezlan

*bidaian* izango da: urtarrilaren 29an, 22:00etan izango da Hika Teatroa taldearen azken lanaren emanaldia Elorrioko Arriolan. Jabier Muguruza musikaria eta Joseba Apaolaza eta Jose Ramon Soroiz aktoreak batu dira Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrek sortutako gidoiaren ingurura.

Istoria, taldekideek Durangoko estreinaldiaren aurkezpenen nabarmendu zuten, "gordina baina oso emotiboa" da: zahartzaroari buruzkoa. Dramarako osagai guztiak dituen arren, umorerako ere badago astirik *Aitarekin bidaian* antzezlanean.

Hileko azkeneko horren aurretik, baina, Yllana talde madrildarraren produkzioa izango da urte hasierarako Arriolan: urtarrilaren 15ean, 22:00etan da *Hermanos del baile* izeneko ikuskizuna. Dantza, musika eta antzerkia uztartzen dituzte 1996 urtetik Madrileko Alfil antzokia kudeatzen duten antzerki taldekoek. ■ I.E.

Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen lana 15erako



ZINEMA &gt; DOKUMENTALA

## 'Pensioners inc.', urtarrileko dokumentala

Langile guztiak pentsiodunak dituen Bostongo lantegi bateko errealitatea, urtarrilaren 14rako

Elorrioko Iturri kultur etxean hileko izaten diren dokumental emanaldien urtarrileko saioan eskainiko dute *Pensioners Inc.* filma. Urtarrilaren 14an, ohitura den moduan egunean, 19:30ean izango da Iturri kultur etxeko hitzordua. Estatu Batuetan, Bostonen dagoen lantegi bateko errealitatea jasotzen duen dokumentala da urtarrilekoa, 2008an Bertram Verhaag poloniarrak zuzendutakoa.

Hodidak eta orratzak ekoizten dituzte lantegi horretan, eta berezitasun nagusia du langileen batez besteko adina 74 urtekoa izatea. Guztira, 35 pentsiodun dira *Pensioners Inc.* enpresan langile.

Urtarrilaren 14an, 19:30ean, da urtarrileko emanaldia

Hodidak eta orratzak ekoizten dituzten aitita-amamen istorioa

Batez beste, 74 urte dituzte dokumentaleko lantegiko langileek

Dokumentalean islatzen denez, lantegi honetako bizimodu ez dago norgehiagokarik edo boterea lortzeko borrokarik. Ordutegi malguak, eta euren bizimodu egiteko nahikoa denbora dute protagonistek.

Zinegintza ikasketak burutu aurretik, soziologia eta ekonomia ikasitakoa den Verhaagen dokumentalerako galderak erantzuten dituztenean, lanean ahal duten denbora guztian jarraitzeko eta bizitzeko irrika erakusten dute filmeko agureek. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga, 'Etxe' Musikaria

## Ohitura zaharrak

Hau da hau zoramena! Beste urte batez ere joan da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Urtero legez disko ugari, artista ugari, kontzertu ugari, juerga ugari... Dena ugari horrelako egunetan. Jendea ere ugari, salmentak, ordea, diren garaiak izateko nahikoa. Eta Azoka pasatu ondoren, Gabonak! "*Olentzero joan zaigu mendira lanera...*" "*Trakatan trakatan hiru errege, trakatan trakatan Belenera...*". Gabonetan ere gauza ugari izaten dira, larregi. Eta ohiturak, zoritarrez, gero eta gutxiago.

Oraindik gogoratzen naiz umetan zelan joaten ginen kantuan abenduaren 24 goizean, baserriz baserri. Goizeko 9:00etan herriko plazan jende asko elkartzen ginen. Kanta bakoitza behin abestu, eta Andikoatik buelta ederra egiten genuen baserrietatik intxaurrek, urrak eta horrelakoak batzen. Andikoako eliza aurrean txorizo bokadilloa jan, eta maldan behera joaten ginen berriro herrira heldu arte. Goiz osoa abesten, baserriz baserri. Eta arratsaldean Olentzero, magalean goizean batutako denak ipini eta gero, herritarrei banatzen ibiltzen zen herri osoan zehar.

Gaur egun ere horrela izaten da, baina ez da lehen bezainbeste jende batzen. Ohitura zaharrak galtzen doaz leku askotan. Familiartean aspaldiko kantak abestea ere leku askotan ez da egiten. Orain, Gabonak joanda, laster helduko da Santa Ageda kantatzeko eguna ere, eta horretarako ohiturarik ez dudana izan arren, aurten ere seguru herrian behar dutenei xoxak bidaltzeko kantatzen irtengo dira. Beraz, atezoka badatoz, zabaldu eta hustu zuen poltsikoak!

MUSIKA &gt; KONTZERTUA



## Ekonen Platerueneko agurra

Urtarrilaren 16an eta Durangoko Plateruenean jarri du Ekon musika talde arrasatearrak bere azkeneko kontzertua eskaintzeko hitzordua. Ekoneko taldekideen eta lagunak dituzten beste talde batzuen zuzeneko agurrerako programatu dutena: Sharon Stoner, Eraso!, Sixty Sexers, Anger eta Estricalla ere

kolaboratzen izango dira urtarrilaren 16an, 19:00etan hasiko den zuzenekoan.

Taldekideen bestelako konpromisoak medio, bertan behera utzi zuten orain sei urte Ekon taldea; euren herriko, Arrasateko Gaztetxean eskaini zuten 2003ko urrian orain arteko azkeneko emanaldia izan dutena.

Taldearen zuzeneko indartsuak eta eszenaratze berritzaileak bildu zituen hainbat jarraitzaile orain hamarkada bat Ekonen ingurura. Erritmo biziak eta piroteknia, DJ-ak eta graffitiak musikarekin uztartuz sortzen zituzten kontzertu berezietako ikuskizunak harritu zituen Ekonen jarraitzaileak.



ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Urtarrilaren 9an, zapatuan, 20:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean antzeztuko dute lehenengo *Decir Lluvia y que llueva* obra Gaitzerdi taldearen barruko Kabia ikerkuntzarako taldeko hamar antzezleek. Hilabete eman dute Durangoko antzoki honetan antzezlanaren jenduraren erakutsi aurreko azken ukituak ematen, eta bertan egin dute komunikabideen aurreko aurkezpena ere, martitzenean.

Onen-onena emaitza San Agustingo emanaldian ikustea dela iradoki arren, ikuskizunari buruzko azalpenak eman zituzten sortzaile gazteek. Urtarrilaren 9an, bihar, San Agustinen estreinatuko dutena "zoriontasunari buruzko gogoeta bat; poema ikusgarri, soinudun eta antzerkizko bat" bezalakoa dela azaldu zuen obraren zuzendaria den Borja Ruizek.

Joseba Sarrionandiaren mundu onirikoan oinarrituta sortua

Durangon aurkeztuko dutena Joseba Sarrionandiaren poesian eta mundu onirikoan oinarrituta sortu duten antzezlaren gaztelerazko bertsoia da: ia bi urtean zehar landu eta fintzen jardun dutena. Taldeki-deek aurreratu digutenez, udazkenerako nahi dute euskarazko bertsoia, *Euria esan eta euria erortzea*, oholtzaratzeko moduan izatea.

"Zoriontasunari buruzko gogoeta bat da 'Decir lluvia y que llueva'"

Lana prestatzen, presarik barik, ia bi urtez jardun dute Kabiakoek

Bi hamarkadako historia duen Gaitzerdi antzerki taldearen babesean 2006an sortutako antzerki ikerkuntzarako Kabia gunean, antzerkiaren lengoia desberdinekin esperimentatzeko sortutako taldean sortu duten bigarren ikuskizuna da Joseba Sarrionandiaren poesian oinarritu dutena. Antzezle eta sortzaileek nabarmendu dutenez, lanak hilabete gutxiren buruan prestatzera behartuta izaten diren garaio-tan, ikuskizun hau beste erritmo batean sortu ahal izateko egin du *Decir lluvia y que llueva* berezi eta bakar.

# Sarrionandiaren poesian oinarrituta, zoriontasunari buruzko antzezlan

Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren olerkigintza lanetako berba eta irudiak oinarri hartuta, Gaitzerdi antzerki taldearen babesean sortutako Kabia ikerkuntza taldeko hamar antzerkigile gaztek sortu duten 'Decir lluvia y que llueva' antzezlaren estreinaldia izango da bihar San Agustinen



Gauzak arineketan barik, patxadaz baina aldi berean lan oso gogor eginez sortzearen gozamenaz azpimarratu dute antzezleek. Horrela, Kabia gunean biltzen den antzezle bakoitzaren ekarpenetan oinarrituta, jolasetik eta clown teknikatik ere baduen obra sortu dute. Objektuen erabilera, ikuskizunerako espreski sortutako musika eta eszenografia ere nabarmendu dituzte.

**Patio baten bi irudi**  
Abiapuntua patio baten irudia izan zutela azaldu digu Borja Ruiz zuzendaria. Patia, ideia edo ikuspuntu desberdin bitik abiatuta, eta Joseba Sarrionandiaren olerkigintzarekin lotuta: patia, pertsonaia gris batzuek euren egunerokotasuneko presazko joanean gurutzatzen duten espazio legez, baina baita ametsetarako txartela eskaini lezakeen espazio bezala.

Zoriontasunari buruzko antzezlana patio bat umeez nola baso, mediku kontsulta edo euren ametsezko munduaren edozein parte bilakatzeko duten indarra erakusten du. Hasiera batean topagune aseptiko, huts eta gris den patioa, biztanleei esker doa bizia hartzen. Ikuslea Sarrionandiaren mundu oniriko horretan barneratzea da antzezlearen helburua: "Egunerokotasuneko egoeren atzealde poeti-

koa erakutsi" eta zoriontasunari buruzko gogoeta egitera gura dituzte ikusleak bultzatu. Besteak beste, Sarrionandiaren *Hil da organista*, *Itzala-ekin solasean*, *Denboraren fabrikazioa* eta *Bakardadea* lanetako testuak izan dituzte antzezlana sortzeko inspirazio iturri eta oinarri nagusi; Sar, Itzala, Huntza, Biztanleak eta Izotzezko Emakumea dira lanaren protagonistak. ■ I.E.



## San Agustingo urtarrila, otsaila eta martxoa

Urtarrilaren 9ko *Decir lluvia y que llueva* antzezlaren estreinaldiarekin abiatuko dute 2010 urtea Durangoko San Agustin kulturgunean. Kabia taldearen lanaren estreinaldiaren aurkezpenaren ondoren eman dute datorren hiruhilabeteko programazioaren berri, asteen, San Agustin kulturguneko Arantza Arrazola programatzaileak eta Astarloa kulturguneko presidente Mari Jose Balier zinegotziak. Gasteizko Paraiso antzerki taldeak eta Belgikako Guimbarde taldeek elkarlanean sortutako 3 eta 7 urte arteko umeentzako sortutako *Kri Kra Kro*

antzezlana izango da, batetik, urtarrilaren 17an. Madrilgo Ron Lala taldearen musika eta antzerki ikuskizuna, *Mundo y final* izenekoa izango da bestalde, urtarrilaren 24an. Otsail eta martxoan zehar Durangoko antzokian ikusgai izango dira *Xabinaitor!*, *Exituz*, *La muerte y la Doncella*, eta Durangoko Karrika antzerki taldearen *Oinez dabilen jente eskasa-Leilaren bidaia* ere. Le Petit Theatre de Pain talde lapurtarrak prestatu duen *Aulki Hutsa* lana izango da, gainera, martxoan; Sarrionandiaren testuetan oinarritutakoa hau ere.



ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

# Baserrien 42 irudi aurkeztu dituzte argazkizaleek

Berrizko Kultur Etxean izan dira ikusgai argazkigileek lehiaketara bidalitako lanak

**B**aserrien irudiak agertzen dituzten argazkiak aurkeztean izan dute parte hartzaileek Berrizko Argazki Lehiaketaren hamaikagarren edizioan parte hartzeko baldintza eta betebeharrak nagusia.

Esteban Urbietak jaso du berriztarren argazki onenaren saria

Gaia erakargarri egin zaielako zein ez, eta argazkizaleak parte hartzerantz bultzatu dituen arrazoiak edozein izanda ere, aurten sekula ez bezalako parte-hartzea izan dela azpimarratzekoa da: 42 lan aurkeztu dituzte lehiaketara,

eta guztiak ikusteko aukera izan dugu gaur arte Kultur Etxean izan den erakusketan. Argazkigintzan espezializatutako epaimahaiak irabazle aukeratu duena, aldamean ikusgai dagoen irudia da: baserri bateko atarrea eta katu batzuen irudia agertzen duen Javier Perez berangoztarraren argazkia izan da irabazlea.

Lehiaketako lehenengo, bigarren eta hirugarren sari orokorrez gainera, epaimahaiak berriztarren lanik onena ere izendatu du XI. argazki lehiaketan: Esteban Urbietak jaso du herriko saria.

Berangoko Javier Perez argazkilariaren irudia izan da irabazlea



## Urtarrilaren 17an emango dute aukeratutako eskulturaren berri

Durangaldeko zein Espainia, Frantzia edota Italiako parte-hartzaileek bidalitako 47 eskultura proposamenak ikusgai izan dira gaur arte Berrizko Kultur Etxeko erakusketan aretoan. Udalak lehenengo antolatutako lehiaketara egileek bidali dituzten maketak ikusi eta euren gus-

tukoak bozkatzeko aukera izan dute gaur arte berriztarrek; izan ere, herritarrek izango baitute lehiaketaren aukeraketan lehenengo berba. Berriztarren botoekin hiru lan onenak aukeratu eta horien artean epaimahaiak aukeratuakoa zein den urtarrilaren 17an emango dute jakitera.



MUSIKA > KONTZERTUA

# Mursego eta Gora Japon zuzenean, Elorrioko Ateneoan

Gaur, urtarrilaren 8an, gaueko 22:30ean da Elorrioko Ateneoko hitzordua



Iazko udaberrian grabatu zuen *Bat* diskoko kantak ekarriko ditu Elorrioko Ateneoan gaur gauerako antolatutako kontzertura Maite Arroitauregik, Mursegok. Hainbat euskal talde - Morau, Lisboa edo Anari, besteak beste - bere txeloarekin laguntzen hasi zen Arroitauregik oholtza gainean, eta bakarkako lana erakusten dihardu zuzenekoetan orain.

Musikaren esperimentazioan, sorkuntzan, aurreiritzirik barik barneratzen den Mursego musikari eibartarrak zabalduko du urtarrilaren 8ko gaueko Ateneoko musika emanaldia.

Taldeakide bien ahotsak, perkusioa eta gitarra osagai nagusiak dituen Gora Japon talde bilbotarraren musika ere izango da Elorrioko Ateneoko urte hasierako zuzeneko emanaldian.

Rock eta funk musikaren egituretatik abiatuta, mugarik barik esperimentatuz sortzen dituzten doinuak erakutsiko dituzte Gora Japonen musikariek.

Inprobisazioa, erritmo indartsuak eta isiltasunak uztartuz sortzen dituztenak. Bilboko Errekalde auzoan 2005 urte bukaerara sortutako taldea da Gora Japon, Bidehuts proiektuan barneratua dagoen taldea. ■ I.E.

Esperimentazioa eta inprobisazioa lantzen dituzte talde biek

LITERATURA > LEHIAKETA

## Ipuin eta bertso paperen lurretako VII. lehiaketa

Urtarrilaren 29a arteko epea ipuini dute lurretako VII. Literatur lehiaketara lanak aurkeztu nahi dituztenentzat: Herri Bibliotekak aurkeztu beharko dira lanak. Ohikoa denez, kategoria bi (ipuinak eta bertso-paperak) eta adinen arabera sailkatutako taldeak osatuko dituzte.

Zazpi urteko Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hasi eta 18 urtetik gora adin mugarik ez dago parte hartzeko. Adinaren arabera, liburu sortak, erosketak bonoak edo diru saria eskainiko dizkiete irabazleei. Parte hartzeko baldintza, haur eta gazteen kasuan, lurretako ikastetxeetan ikastea da, eta kanpokoek ere hartu dezakete parte helduen kasuan.

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 8 22:00etan  
BIOK + MUTED  
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

URTARRILAK 9 19:00etan  
DANTZALDI IBILTARIA  
AIKO TALDEA  
ERROMERIA. Sarrera doan.

URTARRILAK 16 19:00etan  
EKON EKONFEST - AZKEN KONTZERTUA  
EKON-SHARON STONER-ERASO!-SEXTY SEXERS  
ANGER-ESTRICALLA  
KONTZERTUA. Sarrera: 16-19 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**DECIR LLUVIA Y QUE LLUEVA**

Kabia  
espacio de investigación de  
Gaizterdi Teatro (Bilbao)

Urtarrilak 9 • 20:00etan

San Agustín  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**HITZ**

Liburudenda

Tel.: 946 001 076 Artekale, 14 Durango





**PLATERUENA**  
Durangoko Kafe Antzokia

# PLATERUENA URTARRILA

2010 EGITARAUA

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

**02** LARUNBATA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**PIZTIAK**  
**+ MALENKONIA**

22:00etan. Sarrera doan

**16** LARUNBATA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**EKON FEST**  
**Azken kontzertua**

EKON - SHARON STONER - ERASOI  
- SIXTY SEXERS - ANGER - ESTRICALLA  
19:00etan. Sarrera: 16-19 euro

**05** ASTEARTEA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**DELOREAN**  
**+ THE REQUESTERS**  
**+ DJ UNDO + DJ KINKI**

22:00etan. Sarrera: 17-20 euro

**22** OSTIRALA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**RUPER**  
**ORDORIKA**

22:00etan. Sarrera: 10-12 euro

**08** OSTIRALA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**BOK**  
**+ MUTED**

22:00etan. Sarrera: 5 euro

**29** OSTIRALA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**BONECRUSHER**  
**FEST 2010**

THE BLACK DAHLIA MURDER  
- 3 INCHES OF BLOOD - NECROPHOBIC  
- THE FACELESS - OBSCURA  
- CARNIFEX - INFESTED  
19:00etan. Sarrera: 20-25 euro

**09** LARUNBATA



**DANTZALDIA**  
**AIKO ERROMERIA**

19:00etan. Sarrera doan

**30** LARUNBATA



**MUSIKA KONTZERTUAK**  
**GARI**  
**+ JOSEBA IRAZOKI**

22:00etan. Sarrera: 8 euro

OTSAILEAN DATOZENAK 5 VIII. GAU ELEKTRONIKOA 6 EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA 12 ROY LONEY&SR NO + THE HI-RISERS 20 OVERKILL





# Kontsumoaren beherakadak etenaldia izan dau Gabonetan



Kepa Aginako

Joan den urtea krisian bete-betean sartuta emon dogu. Durangaldean bizitako egoera ekonomiko eta laboralak merkataritzan be eragina izan dau, kontsumoa asko jaitsi da-eta orokorrean. Badirudi, baina, Gabonek arnasa apur bat ekarri dabela sektorera. Beherapenen txanda da orain.

**K**atea balitz legez, krisi ekonomikoa eremuz eremu hedatzen joanda, 2008ko udazkenean iragarri zenetik. Higiezin enprekin eta banku garrantzitsuekin hasi zena, ia etxe guztietaraino ailegatu da dagoeneko. Enpresa handien produkzio beherakadak EREak ekarri zituen lantokietara; Durangaldean ondo baino hobeto dakigu hori. Jenteak aurrezteko beharra ikusi, eta kontsumoa be behera etorri da.

Aste honetan Espainiako INEk (Insituto Nacional de Estadística) azaldu duenez, 2009ko hirugarren hiru hilabetearen kontsumo tasa %6,3 jaitsi zen; horren eraginez aurrezte-tasa %46,3 igo zen, guztira errentaren %14,1ean kokatuz. Udazkena

zela joan den kontuan hartuta, baleiteke datu horreek nabarmenagoak izatea.

## Ostalaritza, lehenengoak

Durango, Iurreta, Abadiño eta Izurtzako merkataritza batzen dituen +Dendak elkartearen gerenteak, Santiago Reyesek, kontsumoaren beherakada batez be ostalaritzan igarri dela esan deusku: "Urte honetan, ostalaritzan irabaziak %20-25 gitxiago izan dira". Ostalaritzakoa eguneroko kontsumoa denez, sektore horretakoak izan ei dira krisiaren eragina ezagutzen lehenengoak.

Atzeralditik irteeraren arigarela dinok batzuek, baina Reyesek dino hemen behintzat ez dela

igartzen. "Guri erosten deusku-na Durangaldeko herritarra da, eta eskualde honetako egoera laboralak asko baldintzatzen dau". Bere ustez, "2010eko lehenengo hiru hilabetean, gitxienez, ez gara krisitik aterako Durangaldean".

Gabon bueltan, Durangoko kaleetan animazinoen erakundeak antolatuta dituen +Dendak elkarteak, instituzioen laguntzagaz. Hori ondo dagoela deritzo Reyesek, baina "kalea alaituta edukitzea ez da nahikoa". Horregaitik, aurrerantzean elkartearen helburua merkataritzaren lehiakortasuna bultzatzeko erraztasunak emotea izango ei da. Bide horretan kokatzen da erosketa-txartelaren egitasmoa, salerosketako bi aldeentzat abantailak sortu gura dituenak.

Elorrioren be badabilz EMEkoak (Elorrioko Merkatarien Elkarteak) ideiak biltzen. Mari Mar Fernandezek azaldu deuskuenez, "baleiteke Durangon moduan txartela ateratzea". Urte osoan "ahalegin handia" egiten dabilz merkataritza indartzeko.

## Gabonetan, hobeto

Azken asteotan izaten den igoera aprobetxatzeko saiakera egin dabe Elorrioren, "musika eta abarrek giroa sortu guran". Fernandezek berbetan, "Gabonak igazko moduan joan dira", baina 2009a sektore guztiendako "makala" izan dela aitortu dau. Berrizko Merkatarien Elkartearen lehendakari Mari Satur Blancok hobekuntza sumatu dau irailtik hona: "Aurtengo abenduko salmentak igazkoak baino handiagoak izan dira".

Gabonetako arnasaldia amaitu, eta orain merkealdia dator. Atzo hasi eta martxoaren 31 arte iraungo dau epe horrek. Kontsumo elkartearen arabera, euskaldunok 92 euro gastatuko doguz, batez beste; igaz baino %10 gitxiago. ■ M.Onaindia

Ostalaritzan irabaziak %20-25 gitxiago izan dira joan den urtean

Etor zeitekeenaren beldur, jenteak aurrezteko beharra ikusi dau, eta kontsumoa behera etorri da



**MERKATARIEN ERITZIA**

# Atzeraldiaren ondorioak jasota, baina egoera hobetuko den konfiantzagaz

**“Segurtasun ezak gastatzeko beldurra sortzen dau”**



Tabira Bitxidendan, Durangon, elkartu gara Jose Hernandezegaz. Pazientziatz hartzen dau egoera ekonomikoa, urteko kontsumoa jaitzi dela ondorioztatu arren.

“Krisia igartzen da, bistakoa da hori; jenteak hain beharrezko ez dituen gauzak erosteari itzi deustso”. Tabirakoaren ustez, salerosketak gitxitu dira, “nahiz eta gehiegizkoa be ez izan”. Dena dela, bere ustez, “logikoa eta naturala” da horrelako sasoietan.

“Segurtasun ezak, gastatzeko beldurra sortzen dau jentearengan”, Joserren eritziz. Lan munduan oreka dagoenean, “kontsumitzailea seguru sentitu eta berriro erosten hasiko da”.

Gabonei jagokenez, “jenteak ahalegina egiten dau”, Joserren arabera. Baina eurentzako, garrantzitsuena egunerokoa da.

**“Irailetik azarora bitartean jaitsiera nabaritu genduen”**



Durangoko Urtxintxa jostailu-dendara hurreratu gara, sektore honi buruzko informazioa jasotzeko asmoz. Lanez lepo topatu dogu Esti Zurikarai; Gabonak ondo joan diren seinale. Berak baieztatu deusku.

Zurikarainen esanetan, Gabonak zelan joan diren baloratzera koan, “oso pozik” dagoz. Abenduan oso ondo saldu dabela argitu dau, eta inguruko merkatarien artean be antzeko sentsazioa ikusi dauela. Jostailu denda izanda, eurentzako “hauxe da sasoirik onena”. Bertan daukiezen produktuak “atenporalak” direla aipatu deusku eta, horregaitik, ez dabela beherapenik egingo merkealdi sasoiaren.

“Irailetik azarora bitartean jaitsiera nabaritu genduen; larritzeko modukoa izan zen, gainera.” Abenduan ez, osterara, eta buelta emotea lortu ei dabe.

**“Gu 2007an hasi ginen salmenten jaitsiera nabaritzen”**



Harategiak be ez dira krisiaren hatzaparretatik salbatu. Durangoko Gallastegikoekin izan gara, eta horreen arabera, eurek arinago ikusi eben atzeraldia.

“Gu 2007an hasi ginen salmenten jaitsiera nabaritzen, ez dakit Euri-borrearengaitik edo izango zen”. Aurtan “askogaitik” aldatu ei dira salerosketak: “Geroago eta gitxiago saltzen da”. Hori bai, “Gabonak joan zen urtean baino hobeto” joan direla azpimarratu dau. Gainera, supermerkatuekin alderatuz, abantaila txiki bat be badaukiela azaldu deusku: “Jenteak ez daukanez dirudik erosketa handiak egiteko, hemen egiten ditu erosketa txikiak”.

Egoeraz galdetuta, “ziklikoa dela eta 2015 ingurura arte” ez garelako krisitik guztiz aterako uste dau Gallastegik, 80ko hamarkadako esperientziak gogoan hartuta.

**“Joan den urtea nahiko positiboa izan da”**



Arrainaren salmenta zelan joan den jakiteko Elorriora joan gara, Rosi Arraindegira. Bertako arduradunak, Rosi Meisek, balantze positiboa egin dau, gehiengoaren kontrara.

Ez dakigu arraindegien sektore osoa ondo ibili den edo euren aparteko kasua den, baina Meis behintzat pozik agertu jaku izan ditueen salmentekin: “Joan den urtea nahiko positiboa izan da, eta esan leteke oraindino guk ez dogula krisirik igarri”. Kontsumoagaz jarraituz, “salmentak jaitzi badira, ez dot uste askorik izan denik” dino Rosi Meisek.

Gabonetan be bide onetik jarraitu ei dabe: “Igazko antzera saldu dogu arraina, ez da aldaketarik egon”. Jenteak “antzeko kantitatea” erosi ei dau, eta saldu den arrain mota be “betikoa” izan ei da, Meisen esanetan.

**“Azken hilabeteetako eguraldiak lagundu egin deusku”**



Durangoko Boboli dendako arduraduna da Susana Uribelarrea. Salbuespenak alde guztietan ei dagoz, eta denda honetakoa halako kasu bat izan leteke. Izan be, Gabonak ez eze, urte osoko balantzea egitean be, ontzat jo dabe.

Umeendako arropak saltzen ditue Bobolin, eta kontsumoa egon dela adierazo deusku uribelarreak: “Jenteak erosten izan dau; urte amaieran igarri da zeozer bajatu dela, baina ez da arduratzeko beste garrantzitsua izan”.

Boboliken kasuan, “eguraldiak zer esan handia izan ohi dau. Azken hilabeteetako eguraldi gogorak lagundu egin deusku”. Izan be, jenteak jaka sendoak eta antzekoak erosten ditu halako egoeretan.

Abenduan oso ondo saldu dela dino, eta merkealdi hasieran be jentea animatuko dela uste dau.

**“Durangoko ostalaritzak ondo eutsi deustso krisiari”**



Esperientzia handiko merkataria da Iñigo Karreto. Taberna dauka Durangoko Kalebarrian, eta ostalaritza sektore kaltetuenetako bat izan arren, esperantzaz begiratzen dau aurrera.

Izan be, Karretoren ustez, “Durangoko ostalaritzak ondo eutsi deustso krisiari”, eta hortik ateratzean “indar handia” hartuko dabela pentsatzen dau, berriro be erreferentzia irabaziz eskualdean zein kanpoan. “Batez be astegunetan jaitzi da kontsumoa; jenteak beste ohitura batzuk hartu ditu: etxean egon, lonjetan batu...”. Baina asteburuetan giroa eta kontsumoa nahiko ondo mantentzen dela dino. “Azken batean, jenteak behar dau egunen bat lagunekin eta ezagunekin hartu-emonen izateko”.

Sanfaustoak, Azoka eta Gabonak nota onez pasatu ditueela dino.



## Gutunak

## Osnyko ziega ilunetik 2009ko edozein egunetan

Abadiñotik 880 kilometrora egunak gauekin bilakatu daitezkeen kartzemortuko paraieotatik natorkizu berbetan.

Askatasuna lapurtu zidatela urtea pasa dela uste duena oker dabil, 28 urte pasa baitira konstituzio espainiar faxistak askatasuna lapurtu zidantetik. 28 urte amarekin lotzen ninduen zilbor hestea moztu zidatela, beste hainbeste Euskal Herriari lotzen nauena elikatzen dela. Zapalduz eta zapaltzailez, lapurrez eta lapurretez, traizioz eta traidorez, asko hitz egin dezakegu euskaldunok, armak eskuetan Euskal Herriaren eskubideak Espainia eta Frantziaren izenean zapaltzen dizkiguten bitartean. Molde honetako zapaltzaileekin hitz egiteko gutxi paraieotan.

Orain urtebete lau hormen artean bahitu nindutenetik egunerokoa izan da kideen berotasuna, egunerokoak izan diren moduan Abadiñotik heldutako askatasun eta maitasun keinuak. Versaillesen bizitakoa dugu adibide adierazgarri bat. Berotasun keinu hauen faltan izoztua nintzen honezkero, ziega ilunaren bakardadean. Izozteko moduko keinuak ere iristen baitira kartzemortu honetara, hor dugu, adibidez, Abadiñoko Udaletxean bizitakoa. Euskal preso politikoen eskubideen alde herritar talde batek aurkeztutako mozioaren aurrean PNVko bizkarroiek erakutsitako jarrera lotsagarria eta salagarria. Baina, tira, egun bizi dugun dispersio politika basati honen erantzuleen aldetik zer beste espero genezake?

Eguneko bi ordu eta erdiko patioa oparitzen diguten berberak oparitzen dizkigute bizi osorako kartzelaldiak, zaku berdinean sartuz bestelako opariak ere: ikasteko eskubide eza, gaixotasun larriak pairatzen dituzten kideen askatasun ukapena, isolamendua, jipoiak, mehatxuak... Horrenbeste dira opari pozoinduak, amaigabeak direla euskal preso politikook pairatzen ditugun eskubide urraketak.

21 orduko ziegako bakardadera kondenatu gintuzten berberak bahitu eta torturatu zuten Jon Anza burkidea, heriotzara kondenatuz. Egun lur azpian enterratua dutena. Egindakoa ordainduko duzue! Agur eta ohore, gudari!

Eraso faxistei erantzunez, estatus politikoa aldarrikatuz, amnistia eta autodeterminazio eskubidearen lemapean, gaixo dauden kideen askatasuna exijituz... dinamika iraunkor baten borrokatzeko aukerak soberan izan dira pasa den urte honetan. Zorionez edo zoritxarrez, urte berriak ere borrokatzen jarraitzeko aukerak emango dizkigu. Bakoitza bere lekuan, bakoitzak bere mailan, konpromisoak hartzeko urtea izango dugulako 2010. urtea ere. Euskal preso politikoon kolektiboak borrokan jarraitzeko konpromisoa berresten du. Independentzia eta sozialismoak merezi duelako. Euskal Herri euskaldun, feminista eta sozialista eraikiko dugu!

Beste barik, borrokan topo egingo dugun esperantzaz agurtzen natzazu.

Azken aldian atxilotutako gazte borrokalari denei besarkada iraultzaile bat, eta etxeko ohea hutsik utzi duten guztiei animo pila bat, indar dena... Borroka merezi duelako. Zuekin gaude!

Eneko Zarrabeitia - Osnyko espetxea (Frantzia)

## Azken egunetan hainbat gertakizun eman dira Espainiako espetxeetan!

Beste aste batez, euskal preso politikoen eta euren senideek espetxeetan pairatu behar izan dituzten muturreko egoerak salatu beharrean gaude. Berriro ere, aurrez aurreko bisita andana bertan behera geratu dira, senide eta lagunak aurkako katxeo eta umiliazio saiakerak direla-eta.

Egoera behin eta berriaz errepikatzen ari da. Etxerateko neurri hauek sortzen diguten mespretxua berresten dugu. Asteak pasa ahala, egoera berri eta larriagoen aurrean gaude: ume txikiak katxeatu nahi dituzte, senide eta lagunak paretaren kontra jarri nahi dituzte, biluztarazteko aukera argi adierazten duten afixen agerpena, elbarri bat muleta gabe utzi eta prakak kentzera derrigorrez edo senide batzuk bi hilabete espetxean ez sartzearekin zigortzea.

Etxerat elkartetik beharrezkoak diren interpelazio eta salaketa guztiak martxan jarri ditugu. Ez ditugu gure senide eta lagunak inola ere bakarrik utziko. Oztupo guztien gainetik, maitasuna eta elkartasuna helarazten jarraituko dugu.

## Abenduak 11, 12 eta 13

Valencia II: Jorge Tximeno eta Jon Urretabizkaia aurrez aurreko bisitarik gabe geratu ziren. Funtzionarioek, Tximenoren semea katxeatu nahi izan zuten. 21 hilabete bakarrik dituen umetxoa.

Topas: Joseba Permach, Mikel Jauregi, Iñaki Bilbao eta Jon Crespo presoak zein euren emazte eta bikotekideak aurrez aurrekorik gabe geratu ziren. Hirugarren astez segidan, astearte eta asteazkenetan itxialdiak egiten dituzte.

Castelló II: Arkaitz Rodríguez, Aitor Herrera eta Joseba González aurrez aurrekorik gabe geratu ziren. Ondoren, Castelloko zaintza epaitegian eta Barakaldoko epaitegian salaketak jarri zituzten.

Curtis: Asteburu osoan, sei aurrez aurreko bisita galdu ziren. Bertako presoek, borrokaldiak egiten dihardute.

Foncalent: Endika Abad preso eta bere neskalaguna aurrez aurreko bisitarik gabe geratu ziren.

Teruel: Mikel Lizarribar eta Unai González preso politikoen aurrez aurreko bisitarik gabe geratu ziren. Astelehenean, bertan dauden euskal preso politikoen itxialdia egin zuten.

Brieva: Maialen Zuazo aurrez aurrekorik gabe geratu zen. Senide eta lagunak aurkako katxeo eta umiliazio saiakerak direla-eta, Avilako espetxean hilabete daramate jada aurrez aurreko bisitarik gabe. Asteartetik ostiralera itxialdiak egiten dituzte eta borroka honekin era mugagabe jarraituko dute.

Segovia: Iñaki Goioaga aurrez aurreko bisitarik gabe geratu zen.

Ocaña I: Joxe García Mijangos aurrez aurreko bisitarik gabe geratu zen.

Almería: Olatz Egiguren aurrez aurreko bisitarik gabe geratu zen.

Valdomoro: Sebas Lasak bi aurrez aurreko bisita galdu zituen. Alde bategatik, aurrez aurreko intimoa eta, bestetik, aurrez aurreko familiarra.

Aranjuez: Igor García preso politikoa aurrez aurreko bisitarik gabe geratu zen. Bestetik, Arkaitz Landaberea eta Jon Anda euskal preso politikoen senideak zigortuak izan dira. Ostiralean jasotako komunikazio baten arabera, bi hilabete emango dituzte espetxean sartu gabe.

Villena: Arkaitz Goikoetxearen ama bi hilabete espetxean sartu gabe egotearekin mehatxatu dute espetxetik.

Hauek al dira euskal preso politikoen dituzten "pribilegioak"? Hau al da giza eskubideak errespetatzea?

Neurri hauekin preso senideak umiliatzea dute helburu, eta hau ezin dugu normaltasun giro batean pasatzen utzi. Denok gonbidatzen zaituztegu egoera hau eta presoak pairatzen dituzten beste egoera ilegitimoak salatzera.

Euskal preso eta iheslariak etxera! Gaixorik dauden presoak etxera! Bizitza osoko kondenarik ez!

Durangaldeko errepresaliatuen senideak

## Gerediaga elkartari, eta berau hain sutuki defendatzen duten lagunei

Orain dela hilabete pasatxo astekari honetan idatzi nuen gutunak zeresan handia ekarri du dirudienez, neurri batean pozten naiz, izan ere, ika-mika hauek gure herria bizirik dagoela erakusten baitute. Hala ere, batzuetan guztiok herri berean ez garelako bizi iruditzen zait, ez dugula Euskal Herri berbera maitatzen, eta ez dugula hizkuntza bera hitzegiten.

Gutun horren irakurleek zera leporatu didate: AHTa dela-eta Gerediaga elkartearikiko azaltzen dudana jarrera ulertezina dela. Izan ere, Gerediagak bere Astola aldizkarian AHTaren inguruko erreportaia bat kaleratu baitzuen. Nik ez dut egitate hori inondik inora ukatzen, arrazoiak duzue Gerediagak AHTari buruzko erreportaia luze bat argitaratu zuela esaten duzuenean; baina era berean, aipatu beharra zenukete elkarrekin horrek ez zuela (duela) AHTarekiko jarrerarik azaldu, ez alde ezta kontra ere. Erreportaia horretan proiektu horren aldeko zein kontrako iritzia jaso besterik ez zuen egin. Jarrera epel hau beste zenbait arlotan ere mantendu du Gerediaga elkartek, ustez euskal kultur ondarea zaintzea helburu duen elkartek; eta zalantza gabe, jarrera motel hau da nik salatu nahi dudana, zeren, nire uste apalean, Durangaldeko kultur ondarea babestea helburu duen edonor, kultur ondare hori suntsitu nahi duen etsaiaren kontra ozen agertu beharko bailitzateke.

Egia da baita ere, oso ederra dela "asaba zaharren baratza" bezalako esamoldeak aipatzea, baina, gaur egun, Durangaldean dugun egoera gordin honek zalantza jartzen du AHTa eraikitzeko gero goldatzeko sororik geldituko ote zaigun; eta honek denok hausnarketa bat egitera behartzen gaitu. Gogoetarik egin ezean, eta gogoeta horien ondorioz lanean hasi ezean, zail izango dugu laster euskal kultur ondareaz hitzegitea.

Zentzu honetan zeuen burua Azokara bisita egitearren edo Gerediaga elkar-



**Sei hankako mahaia**



Carmen Sampedro  
EA

**Zaldibar, etorkizunera begira**

Anboto aldizkariak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz, bere konfiantza guri eman zigun Zaldibarko jendea eskertzea nahi dugu.

Zergatik ez gaude Gobernu Taldean? EAjk hori eskaini zigun, baina proposamenik barik.

Orri zuri batean sinatzea eskaini zigun, eta guk proposamen horri muzin egin genion, horregatik oposizio baikor eta gogorra egitea erabaki genuen. Hau zenguk PSOE-PSEko taldeari proposatu geniona, baina haiek EAjrekin akordio batera ailegatu ziren, eta Gobernu Taldean sartu ziren. Horrela hasi zengaur egungo gobernu, EAJ, PSOE-PSE eta Grupo Independientearen gobernu; eta geu, EAko taldea, oposizioan.

Gure helburua Zaldibarko bizilagun guztien bizitza hobetzea da, euren beharrak eta eskariak kontuan hartuz.

Gure etorkizuna jasangarritasunean eta Agenda 21eko ideietan oinarrituta egon behar da.

Gure herrian, oraindik, gaur-azko egin behar dira, eta beste batzuk hobetu; alde zaharra konpondu, eskolako esparrua eta sarbidea konpondu, eskailera mekanikoa beheko aldetik gora, nagusien egoitza, osasun zentroa...

Kultur etxea eta alde zahar-raren egoeratik, ezetza eman diegu aurrekontuei.

Kultur etxearen eraikuntza oso garrantzitsua da, eta momentu honetako proiektua ezinezkoa da arrazoi ekonomikoengatik eta jasangarritasun ikuspegitik. Gu beti "San Juan-go"-an kokatzearen alde egon gara.

Asko dago egiteko, baina lan egiteko gogoak ere baditugu. Ea denon artean Zaldibar hobetzen dugun.

teko kide izatearren euskaltzaletzat duzuenoi Roberto Manjonek AHTa eraikiko balitz honek euskararen gainbeheran izango lukeen eragin izugarria lantzen duen artikulua irakurtzea gomendatzen dizuet, ea horrela ulergarriago egiten zaizuen nire uste apala.

Bestetik, Azoka ez bisitatzearen nire abertzaletasuna zalan-tzan jarri duenik ere bada. Bide okerretik zabilta, mutiko! Ongi dakit nik zer arrazoi ditudan Azokara ez joateko, eta inor baino hobeto dakit zer den herri honetan abertzale izatea: herria maitatzea eta herriaren alde lan egitea (irailaren azken asteburuan ondo irakatsi zigutenez, bide batez, nik ere ez dut bere burua hain abertzaletzat duen hori aspaldian lanean ikusi).

Egia esan, aurten Azoka ez bisitatzearen nire abertzaletasuna sendotu egin dela uste dut, orain, behin "ospakizuna eta jai handia" pasa ondoren, inoiz baino arrazoi gehiago ditut datorren urtean ere ez agertzeko. Ez nau ni Azokako teilatuak azpian harapatuko. Zergatik galdetuko duzue, bada eskuetan dituzten tresna eta baliabide guztiak (militarrak barne) Euskal Herria suntsitu, euskal herritarrak desagertarazi -azkena duela 8 hilabete- eta euskaldunon hizkuntza ezabatzen ahalegintzen direnei bai eta beraien polizia armatuei harrera egiten dion elkarte batek abertzale guztion ukazioa merezi duelako.

Horixe da Azoka zabaldu aurretik egiten nuen irakurketa: ez dut zirko horretan parte hartuko; eta horixe da, gaur inoiz baino arrazoi gehiagoz babesten jarraitzen dudana. Honaxe arrazoiak laburki: Gerediagak AHTarekiko duen jarrera epela eta abertzaletasunaren eta herriaren etsaiekiko erakutsi duen jarrera sumisoa. (Gainera, badirudi ez naizela ni Azokari aurrez zein ostean kritikak egin dizkion bakarra; pozten naiz, Edorta Jimenez).

AHTaren aurka jarrerarik azaldu ez eta gainera horretan lanean ari garen lagunekiko inolako begirunerik ere ez duzue erakutsi. Zuok Durangaldea suntsitzen dabiltzan horiei harrera beroa egiten zenioten bitartean, zuen atzetik zihozten txakur armatuek harrera beroagoa egin zieten AHTaren aurka aldarrikatzen ari zirenei, bultzaka aritu ziren-eta.

Hemendik dei berri bat egin nahi diot Gerediaga elkarteari: erakutsi argi eta garbi euskal kultur ondarearen alde lanean zabil-tzatela; aldarrikatu ozen Durangaldekoko kultur ondarea suntsitzen ari den Abiadura Handiko Trenaren aurka zaudetela. Eta, mesedez, hasi lanean berandu baino lehen.

Gorka Erdoiza Garzia - Durango

**Euskal preso politikoak borrokan**

Idazki honekin herritarroi zuzentzen natzaizue Euskal Preso Politikoaren Kolektiboko partaide naizen aldetik, gure kolektiboak abian jarri duen borrokaldiaren zentzua agertzeko asmoz. Urteak dira jadanik borroka iraunkor bati hasiera eman genio-netik, hilean hainbat alditan ekimen ezberdin finkoak buru-tuz, baita kartzeletan ematen diren eraso fisikoei erantzunez eta askatasun bidean geratzen diren hildakoei gorazarre gisa protesta eginez.

Oraingoan, borroka intentsitatez koska bat igotzea erabaki dugu, gure eskubideak aldarrikapen bihur daitezen, jakitun gare-lako Euskal Herriko jendartearen gehiengoak bat egiten duela, bai Euskal Herriarentzako autodeterminazioaren defentsan nola amnistiaren onarpenean. Badira, halaber, bitartean lortu behar-reko garrantzia handiko beste eskubide urratu batzuk ere: preso politikoaren estatusa, presoen Euskal Herriratzea, isolamendu egoerekin bukatzea, eta, hauetaz gain, gaixotasun larriekin dau-den kideen eta zigorra bukatuta preso mantentzen dituztenen kaleratzea.

Honengatik dei egiten dizuegu eskubide hauen bidezko-tasuna eta zuzentasuna aintzat hartuz, euren defentsan antola-tzen diren ekimen guztietan parte hartzera.

Zunbeltz Larrea Azpiri - Monterrosoko espetxetik (Galizia)

**Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure eritzia, gutuna edo**  
**fotodenuntzia helarazteko**  
**helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



**anboto**  
**durangaldekoko astekaria**

Anboto komunikabideak Elkarte  
2010eko urtarrilaren 8a - 8. urtea - 356 zk.

<b>Laguntzailea:</b>	<b>Eta honako Udal guztiak:</b>		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.  
**Administrazioa:** Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.  
**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.  
**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Argazkilariak:** Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.



# AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 9an

## INDIANO HARRAPARIA

Ameriketarik bueltatu dela ospatzeko ongietorri jaia ospatuko dabe Juanen herrian. Heltzerakoan, bere gaztetako amodioa ikusiko dau barriro Juanek, baina haren alabagaz maiteminduko da. Ongietorri jaiaren bere sentimenduen barri jakingo dau gazte batek, eta gabirai deituko dio. *Los Gavilanes* zartzuelan kontatuko dabe Juanen istorioa, zapatu honetan. Bilboko Masa Coral del Ensanche aurkeztutako dau lana Elorrión, Arriolan.

## urtarrileko agenda

**Abenduak 9-10-16-17** • Iurreta Txirindulari Elkarte  
10:00etan. Ibilbide ezberdinak (65 km).

**Abenduak 12-15-19-20** • Iurretako Herri Biblioteka  
12an, 17:30 Bularretik mintzora  
15ean, Ipuin kontalaria. 17:30 (3-4 urte) / 18:00 (5 urtetik gorkoak)  
19an, 19:00 Irakurleen txokoa. "Sostiene Pereira" (Antonio Tabuchi)  
20an, 19:00 Irakurleen txokoa. "Larrua hotz" (Albert Sanchez Piñol)

**Abenduak 15-16-17** • Bakixako Jai Batzordea  
15ean, 21:00 Jaiari hasiera emateko Donien Atxa jasoko da  
16an, 11:30 Tiro txapelketa / 21:00 Makailau txapelketa  
17an, 10:00 Kalejira / 17:00 Briska txapelketa  
17:30 Maiztegi H.E. Dantza taldea. Ondoren ume jolasak eta txokolatada

**Azaroak 20** • San Sebastian Deunaren eguna  
11:00 Meza Santua / Arratsaldean Igel txapelketa sari sorpresarekin

## IURRETAKO UDALA

# URTARRILA

# BERRIZKO UDALA

### Urtarrilak 8

Haur antzerkia: "Goazen itsasora". Kultura etxea. 17:30

### Urtarrilak 11

Aurkezpena: Euskaratek ikastaroa. Koikili eta Ander Iturraspe Athletic-eko jokalaria. Kultura etxea. 19:00.

### Urtarrilak 22

- Haur antzerkia: "Fase Rem" Kaos Teatroa. Kultura etxea. 17:30.
- Erakusketa: "Urtaroak" Maite Gorrotxategiren argazkiak. Kultura etxea.

### Urtarrilak 29

Dantza: "Kipularen bihotza Sua Urana. Kultura etxea. 22:00

### SAN ANTONIO JAIK

#### Urtarrilak 15

Bertso saioa: balkoitik balkoira. Olakueta plaza. 21:30

#### Urtarrilak 16

- Pailazoak: "Hipo eta Tomas". Olakueta plaza. 17:00
- Pilota Txapelketa. Finalak. 18:00
- Rock kontzertua: Brankan, Kokein eta Norman. Olakueta plaza. 23:00

#### Urtarrilak 17

- Barazki eta Fruitu erakusketa. 24. edizioa. Probalekua. 11:00.
- Artisau txokoa. Olakueta pilotalekua. 11:00 Eskultura lehiaketaren sari banaketa. Kultura etxea. 18:00
- Kontzertua: Iñaki Salvador "Te doy una canción". Kultura etxea. 19:30

#### Urtarrilak 18

Askaria eta herri kirolak. Pilotalekua. 19:00

#### Urtarrilaren 21etik 25era

Idi Proben 54. Sariketa Nagusia.

## ANTZERKIA

### ATXONDO

» **'Klownstrofia mendian'** (Zurumuru), urtarrilaren 8an, 19:00etan, Gaztetxean.



### DURANGO

» **'Decir lluvia y que llueva'** (Kabia, Gaitzerdi Teatro), urtarrilaren 9an, 20:00etan, San Agustinen.

### ELORRIO

» **'Los Gavilanes'** zartzuela (Masa Coral del Ensanche), urtarrilaren 9an, 19:00etan, Arriolan.

» **'Hermanos de baile'** (Adelante Artística eta Yllana), urtarrilaren 15ean, 22:00etan, Arriolan.

### ERMUA

» **'Ellas bailan solas'** (Pikor Teatro), urtarrilaren 9an, 19:00etan, Orbe Kardenalaren plazan.



### ZORNOTZA

» **'Uharte ezezaguna'** (Markeliñe), umeentzako antzerkia. Urtarrilaren 9an, 18:00etan, Zornotza Aretoa.

## BESTEAK

### DURANGO

» **Dantzaldi erromeria**, urtarrilaren 9an, 19:00etan, Plateruenean. Dantzaldi ibiltaria ekimenaren barruan.



## DANTZA

### ZORNOTZA

» **"1.01"** (Dantzaz konpainia), urtarrilaren 15ean, 21:00etan.



## DEIAK

### DURANGALDEA

» **Sahararen aldeko euskal karabana**, Abadiño, Atxondo, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarren. Urtarrilaren erdialdera arte. Arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, sardinak eta konpresak batuko dira.



### DURANGO

» **Hiri debekatuaren 2. mapa**, herriko puntu beltzak identifikatzeko diagnostikoa. Urtarrilaren 15ean eta 16an. Informazio gehiago: Andragunean.

» **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Plataforma Feministak deituta.

» **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

## IKUS-ENTZUN

### ELORRIO

» **"Pensioners inc."** (Bertram Verhaag) Hilaren 14an, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Hilean.doc ekimenaren barruan.



## ERAKUSKETA

### BERRIZ

» **Berrizko I. Eskultura Lehiaketako lanak**. Urtarrilaren 17a bitartean, Kultur Etxean.

## ELORRIO

» **"Picassoren emakumeak"** Urtarrilaren 15era bitartean, Iturri kultur etxean. Hilaren 13an **Javier de la Torre mosaiko egileak** erakusketaren gaineko **azalpena** egingo dau, 19:00etan.



## ERMUA

» **Gemma Monrealen margo erakusketa**, urtarrilaren 17a arte, Lobiano Kultur Gunean

» **'Afrikatik ibili nintzen'**: **Jairo Bербelen argazkiak**. Urtarrilaren 17a arte, Lobiano kulturunean.

## IKASTAROKAK


### BERRIZ

» **"Euskaratek" ikastaroaren aurkezpena Koikili Lertxundik eta Ander Iturraspek**. Euskararen erabilera sustatzeko ikastaroa. Urtarrilaren 11n, 19:00etan. Kultur Etxean. Ikastaroan izena emoteko epea urtarrilaren 14an amaituko da. Udaletxeko Euskara sailean emon behar da izena.

### DURANGO

» **Euskal Dantzak**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.

» **Literatura beltza jorrazteko tailerra**. Urtarrilaren 14tik aurrera, hamabosterik behin. Liburutegian.



## IPUINAK

### ABADIÑO

» **Lur Korta ipuin kontalaria**, urtarrilaren 14an, 17:30ean, Errota kultur etxean.

### BERRIZ

» **"Goazen itsasora"**, **Iker Diaz ipuin kontalariarekin**, urtarrilaren 8an, Kultur Etxean, 17:30ean.





**JAIK**

**BERRIZ**

**San Antonio jaiak**

» **Berto saioa: balkoitik balkoira.** Urtarrilaren 15ean, 21:30ean, Olakueta plazan.

» **"Hipo eta Tomas" pailazoak.** Urtarrilaren 16an, 17:00etan, Olakueta plazan.



» **Pilota txapelketaren finalak.** Urtarrilaren 16an, 18:00etan

» **Rock kontzertua:** Brankan, Kokein eta Norman. Urtarrilaren 16an, 23:00etan, Olakueta plazan.



» **Barazki eta fruitu erakusketa eta artisau txokoa.** Urtarrilaren 17an, 11:00etan, Probalekuan.

» **Eskultura lehiaketaren sari banaketa.** Urtarrilaren 17an, 18:00etan, Kultur Etxean.



» **Kontzertua: Iñaki Salvador "Te doy una canción".** Urtarrilaren 17an, 19:30ean, Kultur Etxean

**IURRETA**

**Bakixako jaiak**

» **Donien Atxaren jasoera.** Urtarrilaren 15ean, 21:00etan.

» **Tiro txapelketa.** Urtarrilaren 16an, 11:30ean.

» **Bakillao txapelketa.** Urtarrilaren 16an, 21:00etan aurkeztuko dira prestatutako platerak.

» **Kalejira.** Hilaren 17an, 10:00etan.

» **Briska txapelketa.** Urtarrilaren 17an, 17:00etan.

» **Maiztegi H.E. dantza taldea. Ondoren, ume jolasak eta txokolatada.** Urtarrilaren 17an, 17:30ean.

**LEHIAKETA**

**ERMUA**

» **Ihauterietako kartel lehiaketa** antolatu dabe. Kartelak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 28a izango da. Udaletxeko Abiapuntu bulegoan batuko dira partehartzaileen lanak. Irabazlearentzako saria: 450 euro.

**MUSIKA**

**DURANGO**

» **Biok + Muted,** urtarrilaren 8an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Abesbatzen kontzertua: Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Bogoroditsie,** urtarrilaren 9an, 20:00etan, San Frantzisko Elizan



**ELORRIO**

» **Gora Japon + Mursego** hilaren 8an, 22:30ean, Ateneoan.

**ZINEKLUBA**

**DURANGO**

» **'El baile de la victoria',** urtarrilaren 14an, 20:30ean, Zugaza zineman.



**ERMUA**

» **'Still walking',** Japoniako zinearen zikloa. Hilaren 14an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kultur etxean.

**ZORNOTZA**

» **'Moon',** urtarrilaren 12an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Urtarrilaren 8an, 22:00etan

**MUTED ETA BOK PLATERUENEAN**

Metal doinuak izango dira gaur Durangoko Plateruenean. Muted talde abadiñarrak eta Usansoloko Biok taldeak eskainiko dabe kontzertua. Mutedek iazko maiatzean kaleratutako *Inbox* diskako abesti barriak joko ditu besteak beste. Doinuak apur bat aldatuta dator Muted, Enekoren ahots melodikoarekin. Metala, sekuentzia elektronikoko programatuak eta melodiaz osotutako musika da abadiñarrena. Biok-ek be metala eskainiko dau, eta iaz kaleratu eben "Gaur ez da dena grisa" diskako abestiak joko dabez, besteak beste. Sarrera: 5 euro..

**ZINEMA**

**DURANGO**

**Zugaza**

**Qué fué de los Morgan**

Zuzendaria: Marc Lawrence  
barikua 8: 19:00

zapatua 9: 20:00 / 22:30  
domeka 10: 20:00 / 22:30

astelehena 11: 19:00 / 22:00

martitzena 12: 20:00

**Avatar (3D)**

Zuzendaria: James Cameron  
barikua 8: 22:00  
zapatua 9: 16:30  
domeka 10: 16:30  
martitzena 12: 20:00



**ELORRIO**


**Arriola antzokia**

**Avatar**

Zuzendaria: James Cameron  
barikua 8: 20:00

zapatua 9: 22:30  
domeka 10: 20:00


astelehena 11: 20:00



**Umeendako zinema**

**Alvin y las ardillas 2**

domeka 10: 17:00



**ZORNOTZA**

**Zornotza aretoa**

**Avatar**

Zuzendaria: James Cameron  
zapatua 9: 22:30  
domeka 10: 20:00

astelehena 11: 20:00

**Umeendako zinema**

**Vicky vikingoa (euskaraz)**

domeka 10: 17:30



**BOTIKAK**

**Barikua, 8**

09:00-09:00  
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)

**Zapatua, 9**

09:00-09:00  
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)

• Campillo / San Roma / De Diego / Balenciaga / Gaztelumendi / Sagastizabal / Unamunzaga (Durango)

• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)\*

09:00-22:00  
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)

**Domeka, 10**

09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

**Astelehena, 11**

09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)

**Martitzena, 12**

09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)

09:00-22:00  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

**Eguaztena, 13**

09:00-09:00  
• Unamunzaga (Muruetta Torre 2C - Durango)

**Eguena, 14**

09:00-09:00  
• Navarro (Artekale 6 - Durango)

09:00-22:00  
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**SOS Deiak.....112**

**DYA .....94 620 28 00**

**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**

**Osakidetza .....94 600 72 00**

**Ertzaintza .....94 466 93 00**

**Suhiltzaileak .....112**

**GARRAIOAK**

Euskotren .....902 54 32 10

Durango .....94 681 02 32

Bizkaibus .....94 448 40 80

Pesa .....902 10 12 10

Continental Auto ....945 286 466

**TAXIAK**

Abadiño .....946 814 470

Matiena .....606 459 988

Durango Geltokia.....946 811 001

Goco Tour .....946 202 860

Tele Taxi .....944 102 121

Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026

Elorrio Geltokia .....946 820 040

J.L. Uriarte .....670 402 002

I. Estebez .....670 678 273

M Galeano.....946 582 854

lurreta .....946 201 565

Taxi auzunea .....688 618 690

**UDALAK**

Abadiño .....94 621 55 30

Atxondo .....94 682 10 09

Berriz .....94 682 45 84

Durango .....94 603 00 00

Elorrio .....94 658 27 12

Garai .....94 681 63 93

lurreta ..... 94 620 12 00

Izurtza .....94 681 35 48

Mallabia .....943 17 14 61

Mañaria .....94 681 89 98

Otxandio ..... 945 45 00 20

Zaldibar .....94 682 70 16

**UDALTZAINGOAK**

Abadiño .....94 621 55 33

Berriz .....94 682 40 36

Durango .....94 603 00 10

Elorrio .....94 682 02 18

lurreta .....94 620 08 88

**BESTELAKOAK**

Arriola .....94 658 31 92

San Agustin .....94 603 00 21

Zornotza Aretoa .....94 630 01 68

Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47

Errota KE .....94 466 94 16

Gorabide .....94 681 24 35

Alkoholiko Anonim.94 415 07 51

Nekazal bulegoa ....94 681 15 20

Uren Partzuergoa ..94 681 74 86

Butanoa (UME).....94 681 08 77

Araztegia .....94 620 28 00

Foru Ogasuna.....94 681 07 42

INEM Durango .....94 681 12 96

Gizarte Segurantz 94 681 49 58

Epaitegiak.....94 603 00 51

**KIROLDEGIAK**

Igerilekua

Astola .....94 620 29 29

Igerilekua

Atxondo .....94 623 14 38

Berriz .....94 682 43 74

Durango

(Landako).....94 621 51 30

Durango

(Tabira) .....94 621 51 50

Elorrio .....94 682 10 27

Zaldibar .....94 682 73 74

**EGURALDIA**

**4º BARIKUA**

Negu gorriko eguraldia espero dogu. Zaparradak ugari izango dira. Elur-kota 0-100 metroan kokatuko da. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da, bolada gogorrek. Maximoak 3-4 °C ingurukoak izango dira.

**1º ZAPATUA**

Aldaketa gitxi itxaroten dogu. Giro oso hotza izango da, eta prezipitazioak botako ditu. Elur-kota 0 m eta 100 m artean kokatuko da. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da, bolada gogorrek.

**2º DOMEKA**

**3º ASTELEHENA**

**3º MARTITZENA**





**Dur**  
**eg**

**Duranga**  
**deko**  
**egutegia**

**2010**

**anboto**  
komunikabidea >

*Elberriko durangak,  
Durangen tropie,  
Garañen lanbolina,  
Berrizen dantsia,  
Garañen egutegia,  
Urtorren arrantzia,  
Urtorren arrantzia*

*Urtorren maldetan behera  
durangaldeko abiturak elerra*



**anbotoren  
egutegia**  
**betiko tokietan  
SALGAI!**





# KIROLAK >



**P**robatzen duenak, posible du asmatzea. Probatzen ez duena da atea beti ixita aurkituko duena. Egoitz Murgoitio (Abadiño, 1983) sei urtean errepideko txirrindularitzan zentratuta egon zen. Profesionaletatik amateurretara jaitsi zenean, berriz gora egitea gaitz ikusi eta betidanik gustatu izan zaion modalitateari aukera ematea erabaki zuen: ziklo-krosari. Aurten horretara bideratu ditu ahalegin guztiak, eta emaitza begibistakoa da. Orain tsu Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu, eta, domekan, borrokarako gogoz doa Laredora, Espainiako erregetzaren bila.

Espainiako Txapelketak puntu-puntu harrapatuko du abadiñarra. Korritu dituen azken

## Probatu eta asmatu

sei lasterketetatik bostetan gailendu da, eta Ormaiztegiko azkenekoan ere irabazteko aukera handiak zituen, amaitzeko 200 metroren faltan Larrinagarekin buruz buru zihola, despiste bategatik azken aurreko itzulia zela pentsatu eta bizikleta aldatzera geratu ez balitz.

Laredoko zirkuitua "laua eta hareatsua da, hondartza baten ondoan dagoelako", Murgoitiori esan diotenez. Beraz, aldaparik ez, baina ibilbide gogorra aurkituko du, eta baldintza horietan bikain moldatzen da. "Euri apur batek ibilbidea gehiago zailtzen badu ere ez gara kexatuko", dio. Jose Antonio Hermida, David Seco, Javier Ruiz de Larrinaga... Hautagaien zerrenda luzea

### Espainiako Txapelketan ariko da bihar Egoitz Murgoitio

da, baina Murgoitio itxaropentsu dago: "Zaila dela jakinda, irabaztera irtengo naiz; gogotsu eta ilusioz nago".

Bizkaiko eta Euskadiko txapelketan erakustaldiak eman zituen. Zeberion bigarren urtez segidan irabazi zuen Bizkaiko txapelketa. Euskadikoa, berriz, Iraetan lortu zuen, Larrinagari minutu biko alde aterata. ■ J.D.

### 24 Saltsaren erdian, gora begira

Aurten Hirugarren Mailako ezaugarri nagusia berdintasuna da. Hautagai asko daude gorako borrokan. Kulturala da saltsaren erdian borrokan dabilenetako bat.

### 24 Iñaki Larrinagaren debuta gaur

Elorrioko pilotariak gaur debutatuko du profesionaletan, Aspegaz. Elorrioko pilotalekuan eta Gonzalez aurrelari duela, Aritz Lasaren eta Goñi III.aren kontra jokatu du.



# Partiduz partidu, baina gora begiratzeko tentazioagaz

Lehen bederatzirak, Kulturala barne, sei punturen barruan daude



Durangoko Kulturalak mailako talderik golegileenetakoa izaten jarraitzen du. Ana Dominguez

**K**ulturalaren aurtengo denboraldiko helburu nagusia argi dugu denok, klubetik behar izan den aldiro errepikatu dutelako: azken urteetako estuasunak albo batera utzi, eta mailari soseguz eutsi. Hala ere, taldearen martxa ikusita, zaila da, zeharka bada ere, sailkapenaren lehen lau postuei ez begiratzea. Santurtziren kontrako estropezuak (1-2) bederatzigarren postura jaitsi ditu durangarrak, baina aurten berdintasuna zeinu duen Hirugarren Mailan, gertu, lau puntura dute play-offeko postua.

Liga erdia joan da, eta kasualitateak aspaldi amaitu ziren. Kulturalak indartsu darrai, eta emaitzek beti laguntzen ez badute ere, Axier Intxaurren entrenatzaileak jokoari ematen dio garrantzia: "Santurtziren

Laudio bisitatuko dute etzi; play-offerako hautagai zena estu dabil, azken laugarren

Hirugarren Mailan berdintasuna nagusi da; talde asko daude puntu gutxiren barruan

kontra aukera asko izan genituen. Baina bat jartzekotan bigarren goleko jokaldia jarriko nuke. Goian geundela, kontraerasoan harrapatu gintuzten, eta ez ginen jokaldia falta batez geratzeko kapaz izan".

Asteburuan Laudio bisitatuko dute; Bigarren B Mailatik fitxatutako jokalariz jositako taldea da, eta uste baino eskasago dabilena. Nork esango zuen liga hasieran, play-offetarako hautagai garbia zena hain estu — azken laugarren — ibiliko zenik eta mailari lasaitasunez eustea beste helbururik ez zuenak, barriz, faborito legez bisitatuko zuenik Ellakuri zelaia. Hala ere, Intxaurren ez da fidatzen: "Garaipenaren bila goaz, baina errespetuz, Laudio jokalarionak dituelako". ■ J.D.

## Santos eta Sanz egokitu ziren ondoen lokatzera

Joan zen domekan Abadiñon jokaturako Cross Laburreko Euskadiko Txapelketa Jordan Santos arabarrak (14.01) eta Ainhoa Sanz gipuzkoarrak irabazi zuten (16.39).

Santos ederto moldatu zen zirkuaitu lokatzera, eta nagusitasunez gailendu zen. Eñaut Insaustik eta Adil El Guarrak osatu zuten podiuma. Emakumeetan Sanz bigarren helmugaratu zen Irene Alfonsoren atzetik, baina asturiarrak taldekako sailkapenean bakarrik parte

hartu zuen eta, beraz, gipuzkoarrrak jantzi zuen txapela. Iraia Garcia eta Aratz Rodríguezek osatu zuten podiuma.

Egun berean gazteen Euskadiko Atletismo Txapelketa jokatu zuten Basaurin. Durangaldeko neskato bi bikain aritu ziren. Alde batetik, Olatz Aguirre kadeteak 100 metrotan irabazi zuen eta, bestetik, Naroa Guarrutxena 3.000 metrotan azkarrena izan zen—gazte mailan—. Biak Bidezabal atletismo taldeko atletak dira. ■ J.D.

Unai Zamalloa •  
Saskibaloia entrenatzailea



### Urte barrian zer?

Gabonak joan barri dira eta, oraindino tripa bete-beteta eta oporraldietako galbana hori kendu barik daukagun arren, konpetizinoa eta lehia hastear dago barriro be gure taldeentzat.

Mutilen lehenengo mailan oso derbi parekatua dator zapatu honetan, Tabirako eta Zornotzaren artean. Lehenengoek urteko azkeneko partiduan kale egin eben, eta bigarrenak azken partidu hori irabazita erreskadan lau partidu irabazita datoz. Baina multzo horretan dagoen parekotasuna ikusita, ez dago pronostiko zehatzik egiterik. Irabaztea gura duenak 40 minutuetan lanean gogor jardun beharko dau.

Nesketan, barriz, Obenasa Ursulinasen aurka izango dau partidua Tabirakok. Iruñarrak sailkapenean Tabirakogaz parekatuta dagoz, eta beti izaten dira oso talde deserosoa aurkari moduan. Gure nesken helburua, erregularitasun handiagoa eta goiko postuetara ahalik eta gehien hurbiltzea izango da.

Bestalde, Bizkaia Bilbao Basket dago. Europan bikain, ACBn beheko zuloan galduta. Non ote dago aurrendenboraldian talde honegaz sortu zen ilusio ha? Esan leiteke klub barruko partaide guztiak be galdu dabela hasieran nabari zeitekeen ilusio hori. Zuritik beltzera pasatu gara (horretan artistak gara hemen), eta dena ipini da kolokan. Baina, Axel Herveillen fitxaketa, taldeko zuzendarien zentzuan onak eta, batez be, zapatuan Valladoliden aurkako garaipenak, taldea suspertuko dau berriro. Seguru baietz.

Urte barri on!

Adituarentxokoa

## Estelarrean debutatuko du gaur Iñaki Larrinagak

Gonzalezekin bikotea osatuz Aritz Lasa eta Fernando Goñi izango ditu aurkari

Pozik dago mutila, eta ez da gutxiagorako. Aspegaz gaur debutatuko du Iñaki Larrinagak; non, eta etxean, Elorrioko pilotalekuan, zaleen babesagaz; norekin, eta Sebastian Gonzalez lau t'erdiko txapelkunarekin; nola, eta jaialdiko partidu estelarrean.

Aritz Lasa eta Fernando Goñi izango ditu aurkari. Jaildiaren berri eman ziotenean, "harridura eta poza" eskutik

etorri zitzaizkiola onartzen du: "Debut gatxa da, erantzukizun handikoa, baina benetan ilusio handia eragin didana". Animorik ez zaio faltako. Lagunak, senideak eta pilotazale oro batuko da frontoian: "Harmailetatik jasoko dudun berotasuna ahal dudun neurrian bueltatzen ahal leginguduko naiz".

Atarikoan, Apezetxea-Urberuaga eta Cabrerizo II-Galartza VI neurtuko dira. ■ J.D.

### SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Zamudio.....37	15- Santurtzi.....23	1- Bidegintza.....9 (+69)	1- Bera Bera ....12 (+209)		
2- Beasain.....36	16- Lagun Onak.....22	2- Seky.es.....7 (+16)	2- Ardoi .....11 (+259)		
3- Amorebieta.....36	17- Laudio.....21	3- San Ignacio.....7 (-15)	3- Gernika .....9 (+139)		
4- Real Sociedad B...35	18- Eibar.....17	4- Zornotza.....6 (+35)	4- Cafés Aitona .8 (+65)		
5- Portugalete.....33	19- Retuerto.....17	5- Padura.....6 (+35)	5- Las Gaunas .8 (+12)		
6- Amurrio.....33	20- Salvatierra.....9	6- Baskonia.....6 (+33)	6- Tabirako .....7 (+86)		
7- Basconia.....32		7- Tabirako.....5 (+9)	7- Deusto-Loiola .7 (+2)		
8- Gernika.....32		8- Easo.....5 (-3)	8- Elexalde .....7 (+1)		
9- Kulturala.....31		9- Legarzia.....3 (-95)	9- Obenasa .....6 (+53)		
10- Elgoibar.....28		10- Bide Bide.....2 (-106)	11- Arabako EHU 6 (-1)		
11- Arexabaleta.....26			12- Atletico SN 5 (-29)		
12- Arenas.....25			13- Getxo 5 (-92)		
13- Zalla.....24			14- Artieda 3 (-122)		
14- Leioa.....24			15- San Ignacio 2 (-242)		
			16- Irlandesas 0 (-275)		



Durangoko Kulturalak 31 gol sartu ditu eta 18 sartu dizkiote, 20 partidutan

# “Ardura handiko maila da, baina baita bizipen zoragarria be”

Denboraldi erdira iristear, Iñaki Alonsogaz (Durango, 41 urte) batu gara Real Unionen orain arteko lana aztertzeko. Bere futbolari eta entrenatzaile ibilbideko gomutak eta istorioak be kontatu deuskuz.

**Jaitsiera postuetan zagoze eta asteburuan Levante bisitatuko dozue. Borrokatzeko eta sufritzeko beste partidu bat.**

Levante mailako oilarretako bat da, eta talde ona dauka. Halan be, guk geure buruari begiratu behar deusagu, horretan be badaukagu-eta lana. Etxetik kanpora dinamika txarrean gabiliz aspaldian, eta bolada horixe apurtu behar dogu.

**Kanpoan lau puntu bakarrik batu dozuez; etxeko puntuen mende egotea arriskutsua da.**

Egia da, eta hainbat adibide aurkitu leitekez, batez be, talde igo barrien artean. Esaterako, igaz Girona etxean oso ondo ibili zen eta etxetik kanpora, barriz, asko kostatu jakon. Bigarren Mailak kalitatea be eskatzen dau. Aurten aurkariak gitxi eginda irabazi izan deuskue behin baino gehiagotan. Lehiakorrakoak izan behar dogu etxetik kanpora.

**Urtarrilean hiru neurketa etxetik kanpora daukazuez: Levante, Hercules eta Recreativo.**

Bai, urtarrileko aldapa izango da. Erronka gogorra da, baina duintasunez gaintitzen badogu, taldeak adorea hartuko dau. Irakurketa hori egin behar dogu.

**Zelan aldatu deustu bizitza Bigarren Mailan entrenatzeak?**

Orain ezin ditut igaz arteko lana (Etenbako Prozesu eta Hobe-kuntza Reingenierian aditua) eta futbola uzartu. Eszedentzia hartu behar izan dot. Orain dena oso profesionala da, eta zehaztasunik txikienagaitik irabazi edo galdu zeinkez partiduak. Bigarren Mailak ardura handia eskatzen dau, baina hau bizitzeko aukera izatea zoragarria da, egunero ikasten zabilzelako, zeure burua apurka formatzen.

**Zelaitik kanpora be gogorra da. Esaten edo egiten den orok komunikabideetan isla izaten dau. Zelan daroazu alderdi hori? Hemen gauza bat esan, eta handik bost minutura Malagan badaukie horren barri. Lehen planteamendu txar baten kritikarik ez genduen jasotzen Marcan; orain batzuetan bai. Alde horretatik igartzen da. Oihartzun mediatikoa handiago da, zalan-tzarik barik.**

**Orain hasieran baino zuhurragoa zara adierazpenetan?**

Neurria hartu behar jako. Igaz Cadizekin gertatu zena, esaterako –play-offetako etxeko neurketa 0-1 galdu arren, arazoa Cadizek zeukala esan eban—. Taldea motibatzea zen helburua, baina esandakoa arin zabaldu zen, eta transzendentzia handia emon jakon. Beraz, bai, prentsaurrekoek zuhurrago jokatzeko eskatzen dabe orain.

*“ Zorte apur bat eskatzen deusat urte barriari; lortu geinkezan lau-bost puntu gehiago ”*

**Garai lako herri trankil eta buko-likoan bizitzeak laguntzen dau barne oreka hori aurkitzen?**

Baietz uste dot. Haize freskoa ondo etortzen da. Entrenatzen dozun taldeko herri berean ez bizitzeak be laguntzen dau. Toki berean bizi bazara, une onetan zoriontzen zaitue, txarretan kritikatu... Beti denen ahotan. Gurago dot hortik aparte bizi.

**Zure ibilbidea aztertuta, inork ezin dau esan ezer erregalatu deustunik. Behe-behetik hasi zinen entrenatzen.**

Kimu mailan hasi nintzen Kurutzia ikastolan. Futbola itzi ondoren, hiru urtean Abadiñoko kadeteak entrenatu nituen. Apurka-apurka Berrizera iritsi nintzen. Handik Hirugarren mailara salto egin neban, Eibar B entrenatzeko. Ondoren Kulturala eta Lemona etorri ziren, hari eta Real Unionetik deitu eusten arte. Behe-behetik hasi eta kategoria askotatik pasatu naz.

**Durangaldeko taldeen ibiliak jarraitzen dozuz?**

Lehen joaten nintzen partidu banaka batzuk ikustera, Berrize-

*“ Lehen, esanak etxean geratzen ziren; orain bost minutura Malagan be badaukie ”*



Gaur egun Garain bizi da Iñaki Alonso durangarra.

ra edo Durangora. Orain, asteburu asko kanpoan emoten doguz, eta gatxagoa da. Baina bertatik bertara ez bada be, saiatzen naz segitzen.

*“ Kulturala lan ona egiten dabil eta urtea amaitu arte goian ibiliko dela uste dot ”*

**Kulturala indartsu dabil aurten. Txintxurreta-Intxaurreta binomioak funtzionatzen dau.**

Emaitzak lortzen direnean ez da kasualitatea izaten. Axierrek (Intxaurreta) kanpoan entrenatu izan dau emaitza onak lortuz, eta etxea be ezagutzen dau. Fitxaketek be errendimendua emon dabe. Uste dot denboraldi amaierara arte goiko postuen borrokan ibiliko direla.

**Kulturalean jokatutakoa zara. Zer gomuta daukazuz?**

Oso ondo pasatzen genduen eta asko disfrutatu neban. Gogoan dot denboraldi batean, gazte mailan jokatzen nembilela, erdilaria izanda 19 gol sartu nituela. Aurrendenboraldi bat lehenengo taldeagaz egin neban, baina sasoi haretan Bigarren B Mailan zegoen, eta gatxa zen gora heltzea.

**Zurumuru batzuek Athleticen orbitan kokatzen zaitue.**

Azken urte bietatik honako zurumurua da. Irakurri izan dot Bilbao Athletic entrenatuko nebala eta antzerakoak. Orain dagozenak lan ona egiten dabilz. Nik lehenengo ikasgai guztiak gaintitu behar ditut; orain Bigarren Mailako ikasgaia aprobatu guran nabil. Ikusiko dogu etorkizunak zer dinon.

**Zer eskatzen deustazu urte berriari?**

Zorte apur bat. Zortea bilatu egin behar da, baina zorte apur bat gehiagogaz, lau-bost puntu gehiago edukiko geunkez, eta hori asko da maila honetan. Ofi-

## Agenda

**SASKIBALOA**  
LEHENENGO MAILA  
(gizonak)

**Tabirako - Zornotza**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Landako kiroldegian  
LEHENENGO MAILA  
(emakumeak)

**Tabirako - Obenasa**  
Zapatuan, 19:00etan,  
Landako kiroldegian  
LEHEN ERREGIONALA  
(gizonak)

**Tabirako - Marrazoak**  
Domekan, 10:00etan,  
Landako kiroldegian  
**Anbotopeko - Askartza**  
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran  
LEHEN ERREGIONALA  
(emakumeak)

**Tabirako - Askartza**  
Domekan, 12:00etan,  
Landako kiroldegian  
BIGARREN ERREGIONALA  
**Julza-Zaldia - Bidegintza**  
Zapatuan, 16:30ean,  
Zaldibarko kiroldegian

**ARETO FUTBOLA**  
NAZIONAL A MAILA

**Sasikoa - Muriedas Urrutia**  
Domekan, 12:00etan,  
Landako kiroldegian  
EUSKAL LIGA

**Kurutziaga - Sasikoa**  
Zapatuan, 19:00etan,  
Landako kiroldegian  
LEHEN ERREGIONALA

**Abadiñoko Gaztetxe - Hegalariak**

Zapatuan, 15:10ean,  
Elorriko kiroldegian  
BIGARREN ERREGIONALA  
**Gu Lagunak - Mendibeltz**

Zapatuan, 17:30ean,  
Landako kiroldegian

**FUTBOLA**  
OHOREZKO MAILA

**Berriz - Lutxana**  
Domekan, 11:30ean,  
Berrizburun  
LEHEN ERREGIONALA  
(emakumeak)

**Iurretako - Peña Athletic**  
Zapatuan, 17:00etan,  
Larakozelain

**ERRUGBIA**  
LEHEN MAILA  
**Elorrio - Arrasate**  
Zapatuan, 16:00etan,  
San Roken

zio apur bat eskatuko neunskio. Taldea batuta badago azken unera arte borrokatuko dogu.

**Futbolaz gainera zer beste afizino daukazu?**

Arrantza. Denpora daukadanean berreskuratu gurako neuken afizinoa da. ■ J.D.



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

**MINKENDU**

MASAJEA, AKUPUNTURA  
(orraitz gabe ere) ETA  
MINAREN AURKAKO  
TERAPIAK • HIDROLIJINA





# LAUHANKA<sup>></sup>



Zetarra orain dela ehunka urte hasi ziren erabiltzen Asian, zeta produzitzeko

Lau fase betetzen ditu bizitzan: arrautza, larba, kapulua eta heldutasuna

5 zm neurtzen dauenetik aurrera bakarrik hartuko dogu eskuetan

## Zetarra, naturara hurbilduko gaituen animalia

Merkea, garbia eta zaintzeko erraza da; umeentzako moduko maskota da

**P**oltsikoak erdi hutsik daukaguzen sasoi honetan, behar-beharrezkoak ez diren gauzak erostea bazterten dogu sarritan. Maskoten kasuan be, seguru batek baino gehiagok birritan pentsatu dauela etxera eroteke erabakia hartu baino lehengo. Zetarrak (*Bombyx mori*), dirua aurrezten eta etxeko txikiak pozik izaten lagunduko deusku. Izan be, animalia hau merkea da, eta beste hainbat ezaugarri on be badaukaz. Hori bai, itxura ez da bere dohainik handiena.

Zetarrak ez dauzikinik ateratzen, eta zaintzeko ezin hobea da: gitxi jaten dau, eta ez dau behar espazio zein dedikazio handirik. Horretaz gainera, umeek animalia bat bere bizitzan eboluzionatzen ikusteko aukera izango dabe, ziklo aldaketei esker. Zeta-kapulua sortzen behatzea eta ondoren tximeleta

bihurtzen ikustea, gauza harri-garriak izango dira; naturara hurreratuko gara zetarra etxean hartuz.

### Asiatik etxeetara

Zetarra orain dela ehunka urte hasi zen erabiltzen zeta produzitzeko, eta leku askotako ekonomian garrantzia handia izan eban. Asiatik, hain justu Txinatik, hedatu zen mundu osora eta gure etxeetara be bai. Horrenbeste sartu da etxeetan ze, dagoeneko gatibutasunean soilik bizi leiteke; ez da askatasunean bizitzeko kapaz. Hegaz egiteko gaitasuna be galdu dau denporaren poderioz.

Guztira, lau fase betetzen ditu: arrautza, larba, kapulua eta heldutasuna. Horren ondoren, arrautzak ipiniko ditu eta hil egingo da. 60 egun iraungo ditu eboluzionatzen.

### Zaintzeko neurriak

Zetarrarentzako bizitoki onena zapata-kaxa da. Bertan ezinbestekoa da jatekoa ipintzea: masustondoaren orriak edo antzeko elikagaien bat emotea komeni da, beti be, ahalik eta freskoenak izanda. Gainera, kontu handia izan behar da produktu kimiko edo pozoiekin fumigatutako landare edo arbolekin.

Eguzkia ez dau oso lagun, ez denpora askoan behintzat. Kontua da, bero handiegia atzeraezineko kaltea ekarri leikiola.

Bestalde, garrantzitsua da jakitea oso txikia denean ezin dela ikutu, 5 zm neurtzen dauenetik aurrera bakarrik hartuko dogu eskuetan. Honegaz lotuta, esan beharra dago geldirik eta burua gora dagoenean be ezin dela ikutu; mudatzen ariko da.

Nire txakurra arreske zegoen orain dela 15 bat egun, eta egun oso batez desagertu zen. Zelan jakin neike kumedun dagoen? Ekaitz (Elorrio).

Hainbat metodo dagoz hori jakiteko: haztaper abdomenala, erradiografia... baina arinena eta onena ekografia da, 25. egunetik aurrera egin beharrekoa. Ez badozu kumerik eduki gura, erabiltzen diren abortu-eragileak oso seguruak dira, eta ez dabe eragiten ondorio kaltegarriak. Ernaltzearen ondorengo 10. eta 45. egunen artean egin leiteke. Bestela, ebakuntza be egin zeinke; gainera, halan minbizia eta infekzinoak be sahiestu leitekez.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)



Alberto Cimarro  
Etorbide Albaitari klinika



# JAEED

## DURANGO 2010

### ZOZKETAN SARITUTAKO ZENBAKIAK:

1. 55.246	15. 06.150	29. 14.228	42. 52.080
2. 18.623	16. 11.496	30. 38.253	43. 04.628
3. 51.716	17. 51.421	31. 54.212	44. 26.470
4. 28.529	18. 33.737	32. 00820	45. 31.710
5. 00589	19. 49.836	33. 35.644	46. 19.223
6. 09.406	20. 38.809	34. 32.567	47. 43.356
7. 22.392	21. 15.147	35. 32.975	48. 29.057
8. 43.746	22. 15.733	36. 08.284	49. 11.737
9. 54.202	23. 45.024	37. 01.603	50. 53.387
10. 30.419	24. 45.345	38. 33.032	51. 28.406
11. 51.555	25. 53.625	39. 15.817	52. 11.224
12. 07.550	26. 36.736	40. 54.854	53. 52.446
13. 46.908	27. 14.474	41. 30.644	
14. 01.721	28. 13.062		

### ZOZKETA BENEFIKOA



# IRAGARKIAK

## LANA



- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman

## MOTORRA

- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi

## BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

## ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

**Otxandio.** Pisua salgai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta despentsa. Tasatutako prezioan. Tel. 675 905 227

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

## ERRENTAN EMAN

**Durango.** Logela bat alokatzen da Alde Zaharrean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 607 086 090 (Ane)

**Durango.** Pisua alokagai. Komuna, sukaldea, lau logela eta egongela. Tel.: 657 795 495

## ERRENTAN HARTU

**Durango.** Etxebizitza bila gabiltza, berogailuarekin. Bikotea semearekin. Tel.: 637 292 465

## KONPARTITU

**Durango.** Etxea konpartitzeko pisukide baten bila gabiltza. Tel.: 666 202 273

## MOTORRA

### SALGAI

**Peugeot 307 1.6** salgai. Gasolina. 2005eko azarokoa, 36.000 km-rekin. IAT 2011ra arte. Klimatizagailuarekin eta oso egoera onean. Garajejan gordetako. 8.000 euro. Tel.: 677 333 167 (Iratxe)

**Lan Rover Defender 2.5 TD** salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Enbrage berriarekin. Egoera onean. 9.500 euro, negoziagarri. Tel.: 696 781 189

**Renault Clio 1.9 D** salgai. 2000. urtekoa. 170.000 km. Kolore urdinekoa. Distribuzioa eginda. Gurpil berriekin. Egoera onean. 2.500 euro. Tel.: 696 781 189

**Ford Escort Turbo Diesel** salgai. Erabilgarri dago, egoera onean. Tel.: 94 621 82 57

**Saab 93 1.9 Tdi** salgai. Beltza, familiarra. 2006ko urrikoa. Bermea 2010eko urria arte. Tel.: 660 467 729

**Renault Megane Scenic Kaleido 1.9 DTi** salgai. Diesela, aire girotuarekin. Irrati-kaseta CD kargadorea, alezioko llantak, itxiera zentralizatzailea, airbaga, ABSa, norabide laguntzailea eta kristal-jasogailu elektrikoak. Kateak eta ekipaiarako barrak opari. 3.900 euro. Tel.: 653 726 708

**Kia Sportage 2.0 TDI** salgai. Bola eta aurreko paratxoeka barne. Beti garajejan gordetako. Egoera oso onean. Tel.: 617 476 685

## LOKALAK

### SALGAI

**Abadiño.** Garajeko plaza bat salgai Zelaietan. Trasteleku erantsita dauka. Tel.: 695 712 520

**Durango.** Garaje itxia saltzen dut. 28.5 m2 ditu. Maristak ikastetxe aurrean (Tronperri kalea). Tel.: 667 851 508 (Goizalde)

### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Haizetarako garajea alokatzen dut Ibaizabal auzoan. Tel.: 94 681 89 47 edo 636 046 318

**Durango.** Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

**Durango.** Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

## IRAKASKUNTZA

### EMAN

Injineru informatikoa Batxilergo eta DBH klaseak emateko prest. Euskara eta ingeles maila ona. Tel.: 685 752 398 (Jon)

## ANIMALIAK

### SALGAI

**Txakurkumeak** salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negozigarri). Tel.: 677 850 585

**Etxeko oilaskoak** saltzen dira. 2-3 kilokoak. Zuriak 5 euro kilo, eta gorriak 6 euro kilo. Tel.: 655 998 402

**Kanario horiak** saltzen ditut. Tel.: 689 586 054

## BESTEAK

### SALGAI

**Garbigailua** salgai. Berria da. Berme barruan. Erdi prezioan. Tel.: 695 728 383

**Akazia taketak** saltzen dira. Neurri guztietakoak eta eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Tel.: 619 088 233

**Wii kontsola berria** salgai. Wii Sports jokoa eta bigarren mandoa opari. 160 euro. Tel.: 686 425 295

**Sailfish Vibrant Neoprenoa** salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

**Autorako aukia** salgai. Romer Isolix duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

**Bibolina** salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arku, resina eta ordezko sokak. Egoera onean. 40 eurotan. Tel.: 637 292 465

**Telefono mugikorra** salgai. LG markakoa. Kargadorearekin. Tel.: 689 847 603 (Nerea)

**Berriz.** Etxeko gela bi ( altzariak) saltzen ditut. Tel.: 696 325 811

## LANA

### ESKAERAK

Osasun arloko produktuen banaketan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Beharrezkoa da ekimen eta komunikazio gaitasuna izatea eta gida-baimena izatea. Baloratuko da: osasun arloko formazioa, antzeko lanetan esperientzia eta trebakuntza arloko esperientzia. Bidali CVak urtarrilaren 22a baino lehen hona: [info.ksegur@gmail.com](mailto:info.ksegur@gmail.com)

Durango bizi den emakume bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 657 772 050

Emakume bat behar da goizetan etxeko lanak egin eta pertsona bat zaintzeko. Tel.: 665 711 966

Emakume bat behar da umea eskolara eramateko (07:30etik 09:00etara) eta etxeko lanak egiteko (ordutegia zehazteke). Tel.: 656 764 504

**Durango.** Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenturako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Merkataritzako agentea behar da aseguru informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Enpresa batek kazetaria behar du hedabide digital baterako. Derrigorra da heziketa eta esperientzia izatea, euskara eta webmasterra menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.316. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Abadiño.** Administrazio laguntzailea behar da aholularitza enpresa batean, departamendu pertsonalerako. Egun erdiz lan egiteko. Derrigorra da Lan Harremanetako diplomatura azken lau urteetan eskuratua izatea, praktiketako kontratua egin ahal izateko; Nominen Foke programa ezagutzea, kotxe propioa eta Durangaldean bizitzea. Erref.: 8.526. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durangaldea.** Bilboko enpresa batek aseguru merkataria behar du bezeroak lortu eta mantenturako, baita ordezkaritzarako ere. Derrigorra da 28-50 adin tartekoa izatea, diplomatura eta esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. 2010eko urtarrilean hasteko, egun osoz. Erref.: 8.527. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Geriatriko erizaintza laguntzailea behar da. Derrigorra da formazioa izatea, urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Euskaraz jakitea baloratuko da. Egun osoko lanaldian. Erreferentzia: 8.666. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Produktzio zuzendaria behar da, garbetezko batean prozesu produktiboa bermatzeko. Derrigorra da %33ko minusbalioa izatea gutxienez, eta heziketa izatea, ezagutza informatibokoaz gainera. Kotxeko karneta eta auto propioa ere eskatzen dira. Erreferentzia: 9.001. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Txakur bilketa zerbitzurako arduraduna behar da. Instalazioen mantenua ere bai. Derrigorra da kotxe propioa izatea, animaliak gustatzea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi erdia, baina astelehenetik domekarako disponibilitatearekin. Erreferentzia: 9.545. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

## ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan egiteko prest, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko, adibidez. Edozein ordutegitan. esperientzia handikoa. Tel.: 607 086 090 (Ane)

Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 678 313 503

Erizaina lan bila dabil. Esperientzia geriatrian eta erreferentzia askorekin. 10 urte alorrean lanean. Titulu homologatua. Beste lan batzuetarako ere prest. Tel.: 695 722 021

Neska euskalduna goizez zein arratsaldean lan egiteko prest, klase partikularra ematen edo umeak zaintzen. Kotxea daukat. Tel.: 628 406 696 (Ixone)

Argazkilaria esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

## ETXEBIZITZAK

### SALGAI

**Durango.** Pisua sailgai erdialdean. 80 m2 ditu. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. 12 urte ditu. Tel.: 656 711 625 (Mario)

**Durango.** Etxea salgai Landakon, Txibitanan. Sukaldea, 3 logela, saloia, bi komun eta bi balkoi handi ditu. Seigarren solairuan. Ondo zainduta. Garaje itxiarekin. Tel.: 94 616 62 97

**Elorrio.** Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreinatzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarte. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

**Mendi bizikletarako balaztak** salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatuta gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

**Berogailu elektrikoa** salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

**Arko izozkailua** salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

**Etxeko kanpaia** salgai. Isla estilokoa. Ia-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

**Karreratako bizikleta eta ziklo krosetako bizikleta** salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

**Erabilitako CDak** salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan Tel.: 606 266 244

**Neopreno laburra** salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm. Tel.: 658 738 734

**EROSI**

**lurreta.** Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako umeen segurtasunerako aukia (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrientzako moisesa erosiko nitzuzke. Tel.: 650 573 607

**Bikiak paseatzeko aukitxoa** erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

**BEREZIAK**

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolakoa eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290

**Durango.** Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Interesatuak deitu hona: Tel.: 605 711 331 edo 630 839 325

Afrikan trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurlaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poitsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

**Atxondo.** Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen ditut. Tel.: 619 552 202

Denetarik margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreproduzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

# INMOBILIARIAK

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO / Bizkaia

**ETXEBIZITZA BERRIAK**

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikiten dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

**ETXEBIZITZA SALGAI**

- Anbroso Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. ( 135 m2 ).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriuzeta: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. ( 150 m2 )
- Elorrio: Halla, sukaldea, balkoia, 3 logela, egongela eta komuna. Trasteleku eta garajea.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. ( Guztiz barriztuta ).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. ( Guztiz barriztuta eta erdi jantzia ).
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, logela eta balkoia.

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO  
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com  
www.inmoduranguesado.com

**ETXEBIZITZA SALGAI**

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
- Tabira: Luxuko etxebizitza berrien promozioa.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Ambrosio Meabe: 108 m2. 3 logela. 2 kotxerentzako garaje itxia. Ganbara.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa. 2 logela. Garajea eta trasteleku.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñituri - Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- Mikeldi: 50 m2. Logela bakarra. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- ZALDIBAR: Lursaila. Eraikitzeko aukerarekin.
- BERRIZ, ZALDIBAR, ELORRIO, ABADIÑO: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.

**ETXETXO** G. INMOBILIARIA  
Salgaiak: 1 www.etxetxo.com  
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

**ETXEBIZITZA SALGAI**

- J. Olazaran: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Tabira: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Eguzkitsua. Oso polita. Garaje itxia.
- Frantzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 340.000 €.
- Durango: 2 logela. 156.300 €.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Tronperri: 115 m2. Hidromasaje-bainuontzia. Gustatuko zaizu.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Pinondon: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegi ikusgarriak.
- Montevideo: ( Jesuitas ). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegi: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Igogailua. 228.400 €.
- Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia.
- IURRETA
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- ABADIÑO
- A.Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trasteleku. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 €.
- ZALDIBAR / BERRIZ
- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea.
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
- BERRIZ
- Iturria: 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.

**PABILIOIAK SALGAI**

- Frantzisko Ibarra: 50 m2. Alokairuan. 540 €.
- Durango: Bulegoak. 55 m2 eta 65 m2. Alokairuan.
- Madalena: ( Landako ) 80 m2. Instalazio guztiekin.
- Iurreta: 109 m2. Alokairuan.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.
- Montevideo: 22 m2. Alokairuan.
- F.J. de Zumarragan ( Madalena ): 75 m2. Salgai.
- ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK,...

**Amboto**  
San Agustinakle, 4 - 1 Esk.DURANGO  
TE: 94 681 35 62. email: amboto@eskakal.net

**ETXEBIZITZA SALGAI**

**DURANGO**

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua. 3 logela, ( logela printzipala komuna eta jantzigelarekin ), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, ekegitokia eta trasteleku.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

**IURRETA**

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

**MATIENA-ABADIÑO**

- Txinurrisolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara, garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora ematen du.

**JAKA**

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trasteleku. Estreinatzeko.


**TXALETAK SALGAI**

**ABADIÑO**

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.



# DENPORAPASAK >

		Ipar EH-n, inguru Hezur baten izena	Jeinu greziarra Espainiako erkidegoa	Ale landarea
Praikoa	Pregoi	Gizon izena EH-ko behi basa		
Gasteizko auzoa	*Eskualdek o dorretxea			
Auto-mobilak Haur hizk., haur			Boto Mehe	Zirri eginez
Iratzarri, esna Mungiako auzoa				
Bokal bikoitza Kiskalia		Egun Euskal sindikatua		Röntgen Gizon izena
Pl., motor kirola Moila, kaia			Naizen hau Iterbioaren ikurra	
			Leheneng o bikoitia	

**1**

9			8	2	6
6				4	3
3	7	2	4		
		8	6		7
2	7		1	9	5
	1	5	9		8
			3		8
8	6	7	1	9	5
2	3	5	6		

**2**

	9		7		
				1	8
3			1		7
	8				4
	5			9	8
			6	5	
5		2	9		3
1	2	5			
7	3	8	4	5	

**HOROSKOPOA >**

**Aries**  
marxoak 21 - apirilak 20  
Esperantzak desilusinoa dakar askotan beragaz. Oraindino Olentzerori itzarrik itxaroten deutsien horreetakoa zara ala?

**Taurus**  
apirilak 21 - maiatzak 20  
Hainbat kilo hartu eta gero, orain kirola egiteko asmoekin, ezta? Hurrangoan, ez jan hainbeste.

**Gemini**  
maiatzak 21 - ekainak 20  
Nor izan da zure lagun ezkutua? Beharbada, ezkutuan egon da eta oraindino ez dozu deskubritu. Zeuk ikertu beharko dozu.

**Cancer**  
ekainak 21 - uztailak 20  
Zigarroa ez da mukizapia, baina beti eskatzen zabilz. Noiz erosi behar ete dozu zuk? Misio gatxa da zuretako, beharbada.

**Leo**  
uztailak 21 - abuztuak 23  
Uste baino arinago konponduko da lanagaz daukazun arazoa. Bitartean, aprobetxatu egizu denpora beste gauza batzuetarako.

**Virgo**  
abuztuak 24 - irailak 23  
2010erako desioak eskatzeko ordua da, baina baita prebisinoak egitekoa be. Izan be, guztia ez da erregalututa lortzen.

**Libra**  
irailak 24 - urriak 23  
Gabonak pasatu arren, negua ez da amaitu. Datozen egunetan zaindu zaitetz, gaixorik egotea gura ez badozu, behintzat!

**Scorpius**  
urriak 24 - azaroak 23  
Emondako erantzunak zer pentsatua emoten dau. Gauzarik txikiak be garrantzia handia hartu leike momentu jakin batean.

**Sagittarius**  
azaroak 24 - abenduak 23  
Egin kasu gehiago gurasoei. Izan be, jente guztiaren partetik ikasi geinke zeozer. Esperientzia lagungarria da bizimoduan.

**Capricornus**  
abenduak 24 - urtarrilak 20  
Era batera edo bestera, baina borondate ona erakusten dozu. Jarraitu halan aurrerantzean be, eta ingurukoek kontuan izango dabe.

**Aquarius**  
urtarrilak 21 - otsailak 18  
Maitasunak buruhaustek emoten ditu sarritan, baina horregaitik da hain berezia. Eguneroko lana ezinbestekoa da.

**Piscis**  
otsailak 19 - martxoak 20  
Itzi kreditu txartela etxean, bestela laster diru barik geratuko zara-eta! Kontrolatu egizu kontsumoa...


**ZORION AGURRAK >** agurrak: zorionak@anboto.org-ra  
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Ondo etorri, **Anartz**, 3 kilo eta 700 gramoko iurretare sortu barria. Zorionak Uxue arrebatxoari, eta Unai eta Itziar aita-amei.



Gure **Uxue** pinpirinak 4 urte bete ditu urtarrilaren 5ean! Zorionak bihotz-bihotzez, zure familia eta lagunaren partez!



Berrizko **Manex Arteagak** abenduaren 17an 2 urtetxo beteko ditu. Zorionak eta bi musu, guraso eta familiaren partez!



Aita eta alaba, honeek, **Igorrek eta Intzak** urtarrilaren 1ean urteak bete zitueen, txikiak bat eta haundiak batzuk gehiago! Zorionak, amatxoren partez!



Abenduaren 13an **Leire Alberdi Garro** jaio zen. Zorionak eta ongi etorri Aiala, Maialen, Mikel eta Inharren partez.



**Unaxe**k bost urte egin ditu errege osteko egunean, Gabonetako oporrak amaitu barri ospatzeko moduan. Zorionak, txapeldun!



Zorionak, **Aingeru!** Abenduaren 17an urte bat egin zenduen. Musu handi bat Elorrioko aitita-amamen partez.



**Garazik** urtarrilaren 12an 6 urtetxo egingo ditu. Zorionak, printzesa, eta musu pila-pila patata tortilla! Etxeko guztien partez.



**Edurne**k abenduaren 31n urteak bete zituen. Bazkari eder batez ospatu genduen. Ia horrelako beste bat egiten deuskuzun!



Zorionak, **Maider!** Abenduaren 17an 7 urte bete dozuz azkenean! Zure ahizpa Oihane eta Kororen partez, patxo haundi bat!



**Alazne**k urtarrilaren 10ean urte bat gehiago egingo dau eta ospakizunaren gonbidapenaren zai gagoz! Ondo pasatu eta zorionak!



Elorriko emakume dotore honek urteak egiten ditu gaurko egunean, urtarrilaren 8an. Zorionak zure, ahizpa eta familiaren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Laiatz**. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeuri egokitu jatzu. Oparia eskuratzeko txartela gura dozunean jaso zeinke.



### Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak. Eguneko menua.  
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



### Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera. Razioak terrazan.



### Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehena eta martitzen gabaz itxita.



### Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Merendolak.

# Jatetxe gida



### Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz  
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan, etxeko moduan sentitzeko.  
Arrain errea kartan.  
Eguneko menua: 8 euro.



### Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz  
Tel.: 94 682 40 77

Karta.  
Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



### Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango  
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.  
Karta.  
Eguneko menua.  
Menu berezia.

Hemen agertu  
gura  
badozu,

## DEITU

**94 621 79 02**



# "Shangain ohikoa da jentea atzerantz oinez ikustea"

Mikel Mendibek lan kontuengaitik urte eta erdi daroa Txinan; hango bizimodura ohitu dela dino

**G**oiuritik Shangairako bidea hartu eban Mikel Mendibek duela urte eta erdi. Txinera ikasten be hasi da, eta txinarrak langileak eta zabalak direla kontatu deusku. Etxean moduan dago bertan. Izan be, etxe-orratzen gainean futbito zelaiak eraikitzen diren hirian euskaldunek elkartzeko lekua topatu dabe.

## Gustura bizi zara Shangain?

Bai. Hasieran ez nekien zelan konponduko nintzen; Goiurikoa izanda Shangaira joatea, han 20 milioi pertsona bizi diren lekura... baina oso ondo nabil. Atzerritar asko dago, euskaldun asko, eta etxean moduan nago. Lanean MCC kooperatibako zazpi enpresa gagoz batera. Hogeit bat euskaldun gagoz bertan, eta egunero elkarrekin bazkaltzen dogu; oso erlazino ona daukagu. Gainera, Shangain Euskal Etxea daukagu, 70 euskaldun inguru gagoz, eta oso erraz batzen gara. Jatetxe euskaldunak be badagoz. Shangain denetik dago, eta oso erraza da bertan bizitzea.

## Zelakoak diratxinarrak hartu-emonetan?

Lantokia dagoen herrian, Kunshanen, adibidez, oso jente zabala topatu dot. Diskotekara joan, eta etorri egiten jatzuz, "Hello" esan -ez dakie besterik ingelesez- eta trago batera gonbidatzen zaitue. Jente ona eta langilea da.

## Hizkuntzagaz zer moduz?

Enpresako langile gehienek ez dakie ingelesez. Arduradunek bai, idazkariek-eta... Eta guk eurei gauzak esan eta gero egiten dabe berba eurek langileekin. Banabil txinera apur bat ikasten, eta hor gabilz ingeles-txinatar-mandari-noan zer edo zelan komunika-tzen.

## Komunikatzeko orduan anekdota ugari edukiko zenuen...

Han egunero izaten dira anekdotak. Adibidez, jatetxe batera joaterakoan, dena txinerraz dago idatzita, eta ez dakizu zer jartzen dauen. Orduan hemendik hau, bestetik hau, handik bestea... eskatu eta gauzak probatzen joan naz. Orain badakit gitxi gorabehera taberna baxotxean gustuko dodana menuaren zer lekutan dagoen idatzita, eta hori eskatzen dot.

## Euskaldun asko batzen zariela esan dozu. Korrika be ospatu zenuen Shangain...

Duela hiru urte be antolatu zen, baina arazoezin; poliziak desmantelatu egin eban Korrika, han ezin delako kalean batzarrik eta manifestaziorik egin. Igaz kale txikiago baten egin genduen. Yuyuan plazan batu ginen pankartagaz, eta jende asko inguratu zen zer zen galdetzera. Gero Euskal Etxera joan ginen, eta buelta emon geuntsan etxaldeari. Euskal Herrian oihartzun itzela izan eban. Ni sartu nintzen testiguagaz Euskal Etxera, eta Lurretara heltzerakoan jente askok esan eustan telebistan ikusi nindueela Korrikan.

## Pilotagaz hartu-emon izan dozu zuk hemen. Egia da Txinan frontoia egiteko asmoa daukazuela?

Bai, eta azkenean MCCtik eskualdeko agintariekin berba egin dabe, eta frontoia egiteko prest agertu dira. Kiroldegi bat egin behar dabe, eta barruan frontoia egingo dabe azkenean. Hiru urte barrurako eginda egongo dela esan deuskue.

eta ikusiko dogu. Ea hona buelta-tu aurretik frontoia eginda ikusten dodan!

## Txinako lehenengo frontoia izango da?

Bat badago! Ez dakit orain zutunik egongo den, baina Euskal Etxean badaukagu argazki bat, pilotariak Filipinetara joan zireneko-edo, eta han ikusten dira txinarrak euskal pilotariekin.

## Bertako ohiturak mantentzen jarraitu dozu Txinan. Hartu dozu hango ohiturarik?

Ez, ez dot uste. Beno, masajeak hartzearena bai. Han ohitura handia da masajeena; masajeak hartzeko leku asko dago, eta lanetik irten da oso ondo etortzen da. Baina beste ohiturarik ez. Adibidez, goizetan, batez be jente nagusia, bostetan jaiki, eta taichiegite-ra joaten da parkeetara. Oso tipikoa da

Shangain jentea atzerantz oinez ikustea be, ez dakit zergaitik; muskuluentzako ona izango da-edo. Hiri erdian jentea pijama jantzita ikusi zeinke, eta gukez dogu horrelako ohiturarik hartu! Beste ohitura bat otorduen ondoren *kanpei* egitea da; garagardoagaz edo Txinako likor oso txar bategaz topa egin eta tragoan edaten dabe. Norberak aukeratu dau nogaz edan. Arin edaten dabe eta erraz mozkortzen dira, ez daukie aguan-te handirik.



Mikel Mendibe •

Goiurikoa da  
Lau urte egin behar ditu  
Shangain



Jon Artza  
Soziologoa

## Udazken laburra

Aurreko zutabearen, trenetik eginiko bidaian udazkeneko koloreak ikusten banituen, orain osterazuhaitzak biluzten ari zaizkigu. Udazkenak, azaroak batik bat, badakar berarekin tristurarako kutsu edo joera bat. Juanjo lagunaren heriotzak goibeltasun hori nabarmen areagotu dit.

Baina, udazkena laburra izaten da Durangaldean. Udak Sanfaustoak arte irauten du, eta gabonak, osteraz, Liburu eta Disko Azokarekin batera hasten dira. Aipatu Azokak eta hurrengo asteburuan izan zen Bertsolari Txapelketaren finalak arrakasta nabarmena izan dute. Hamarkada gutxitan elizpe-tik erakustazokara eta fronto-tik BECera pasatu gara. Euskal Herri kulturala indartsu dagoen seinale. Aitzitik, Gabonetan eta bigarren urtez jarraian ez dugu Euskal Herriko futbol selekzioaren partidurik izan. Eztabaidak eztabaida, nire ustez konponezin hau gure ezintasun politikoren erakusle baino ez da, futbol zelaian erabaki ezin daitekeen afera. Zelaira mugatuz, ez al da hobe Euskal Herria izenarekin euskal lurraldeetako jokalariek ari-tzea? Eta horietatik nahi dutenek ofizialtasuna aldarrikatzea?

Udazkenak neguari bidea utzi dio, eta horrekin batera urte berria iritsi. Asmo eta helburu berriak definitzeko sasoi. Niretzako eta gertukoentzako osasuna baino ez dut desio. Herri zahar honi dagokionez, badirudi Kantauri itsasoko haizeek, BECen antzera itzaropenezko olatu bat ekar dezaketela. Esan gabe doa, bai ala bai hartu beharreko olatua dela. Bestelagorriak ikusiko ditugu, eta ez soilik San Mameseko futbol zelaian.

**JUAN BERISTAIN**  
NEKAZAL TRESNAK



Salmenta  
eta  
konponketa



**HONDA**  
**STIHL**  
**SAME**  
**BCS**  
**CARON**  
**VIKING**

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03